

ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA 2009 · 9. ALEA

Oilategitik



XABIER ARTOLA

2009

non zer

- 3 Alkiza etorkizunari begira, 2009
- 4 Alkizako Jose Antonio ibiltaria
- 5 Amona
- 6 Atzo atzokoak
- 10 Alkizako baserriak
- 12 Urrezko ezteiak
- 13 Alkizako Jaiak 2009
- 14 Bitxikeriak
- 16 **ESKOLA** Ikasleen komikiak
- 21 **ESKOLA** Ongi etorriak
- 22 **ARGAZKI RALLYA** 2008
- 24 **UDALAREN TXOKOA** Aurtengo egitasmoak
- 26 Joan den urteari begira
- 36 Alkizako ahozko **TOPONIMIA**ren laburpena
- 40 Alkizako etxeak eta biztanleak
- 41 **ELKARRIZKETA** Keparekin kontu-kontari
- 44 **ELKARRIZKETA** Urruzolako leinargiarekin solasean
- 48 **ELKARRIZKETA** Jesus Sorarrain
- 51 **ARTIKULUA** Azaroaren 8an
- 54 **ARTIKULUA** Umeen deia
- 56 **ARTIKULUA** Alkizako Tours-eko San Martin Parrokia
- 58 **ARTIKULUA** Ai, ama! Ai, ama!
- 60 **ARTIKULUA** Errepublika aurreko eskola
- 62 **ARTIKULUA** Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga edo gainbalioaren zerga
- 64 **ARTIKULUA** Joan Bautista eta Joan Elias Intxaurrendiaga
- 66 **ARTIKULUA** Mitxiguak eta azpitxuriyak
- 68 **ARTIKULUA** Txondorra Alkizara itzuli zen
- 70 **ARTIKULUA** Gorka, mila esker

Argitaratzailea eta koordinazioa: Alkizako Oilategitik K.E.

Tirada: 800 ale.

Lege Gordailua: SS 814/01

Oilategitik aldizkaria doan banatzen da eta ez du bere gain hartzen bertan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

Alkiza etorkizunari begira, 2009

Bada Europa mailan **Herri Kulturalak** izeneko mugimendu bat (www.cultural-village.com/-index.php), bere ibilbidea 1997tik datorrena. Bide beretik hasi da Alkizako **ITXURAIN** nortasuna gordetzeko proiektua.

laz, galduz doan ohitura bati helduz, txerri hiltzea berritu zen, bere pauso guztiak emanaz: txerri haztea, hiltzea eta txerriak jateko prestatzea. Alkizako Beheko Plazan ohituraren ospakizunak parte hartze handia izan zuen.

Aurten, Alkizak dituen basoetako beste ohitura bati ekin zaio, Gipuzkoako Trontza Txapelketa bertan lehiatuko zela-eta. Maiatzaren 17an, Alkizan jokatu ziren Gipuzkoako Trontza eta Txinga txapelketak. Aldizkari honen azalean ageri da argazkia.

Efemeride hori girotzeko urte osoko bileretan, programa zabala prestatu zuen **ITXURAIN** taldeak, hiru

ataletan oinarrituz, hirurek Ernioko basogintza oinarri zutelarik: Ernioko Kablea, Ikiliko txondorra eta trontza ospakizunak.

Ernioko Kableak, 1945-1950 urteetan, Ernioko Illardegitik Alkiza eta Larraulgo udal eremuetan zehar bost kilometrotan Asteasuko Konporta baserri ohira bost mila tona sutako egur garraiatu zituen, Donostiako okindegietan kiskaltzeko. Gaia horretaz mahai ingurua antolatu eta bideoan hartu zen saio osoa.

San Isidrotako aste kulturean, 10-17 astean, Ikili baserriko txondor zuloaz baliatuz, egurra prestatu, tolestatu eta ikatza egin zuten alkizarrek, Garmendiko Benito buru zutelarik. Bertan moxala parrillan erre eta jan zuten herri bazkarian. Argazki erreportaje bikaina egin zuen Xabier Artolak.

Basoko ohiturak eta kultura burutuz, Alkizan trontza txapelketa jokatu zen. Andoni Rezabal aiarra eta Aitor Roteta alkizarra lehiatu eta bigarren geratu ziren. Ondoren arpana, tabloiak egiteko tresna zaharrenekin erakustaldi bikaina eskaini ziguten Antzitako Aitor eta bere lagun aiarrak.

Kultura etxean kablea, txondorra eta trontzaren gainean erakusketa, diaporama eta filmak proiektatu ziren. laz bezala ekintza guztietan jendeak gogotsu parte hartu zuen.



X. ARTOLA



X. ARTOLA

Alkizako Jose Antonio ibiltaria

Jose Antonio Alkizan jaioa da, Aizmendi-goikoa base-
rrian, eta bertan bizi izan da kenduta Afrikan soldaduz-
ka egon zenean 28 hilabetez, Ceuta, Chaouen eta
Tetuanen. Andoainen lan egin zuen bonba fabrikan 14
urtez eta gero Billabonan janari-denda eduki zuen.
Baina moto istripu bat izan eta gero, ezinezkoa zitzaion
dendan lanean jarraitzea, eta alokatu egin zuen. Orain
Arnasa taberna da.

Baina benetan harrigarria dena da bere ibiltzeko grina,
bere mendiarekiko maitasuna. Hau txiki-txikitatik omen
du. Baserriko lanak egin, bapo afaldu eta bera bakarrik
abiatzen omen zen ttipi-ttapa. Horrela, zeharkatu ditu
gure inguru guztiak. Mila aldiz edo gehiago joan omen
da Aizkorriara, bere etxetik Arantzazura oinez, eta han-
dik Urbiara, Aizkorri bukatzeko. Hamabi orduko mar-
txa omen da mendiz mendi. Aizkorri azpiko artzain
batek gelditu omen zuen behin harrituta, esateko ez
zuela inoiz horren azkar jaisten zen gizonik ikusi, ahun-
tzen moduan jaisten zela.

Beti bakarrik joatea gustatu izan zaio. Bakartia izanik,
norbaitekin joanez gero, bere martxan ibili behar
zela dio. Nahiz eta pila bat aldiz Aizkorri,
Txindoki, Udalaitz edo beste norabaiteira
joan, inguruak goitik behera ezagutu
ahal izateko, beti bide berria eta desberdi-
nak hartu izan ditu. Autoa gidatzen ez daki,
eta etxera trenez itzultzen zen. Batzuetan
hiru egun ere egiten zituen kanpoan, baina
ama ez omen zen kezkatzen. Mutil zintzoa
izanik, etxera noiz itzuliko zen esateko dei-
tzen zuen. Etxera iritsi, atsedean piska
bat hartu, eta baserriko lanetan
jartzen zen fin-fin.

Alkizatik mundu guztira-
ko bideak hartu izan
ditu: Usurbildik Donos-
tiara, handik Guadalupe-
ra, gero Pasaian Aiako
harrietan bukatzeko.
Beste behin, trena hartu
Durangora, handik
Urkiolara oinez, gero
Udalaitzera eta Arrasate-



ra jaitsiz, Bergarara abiatu Oinatin bukatzeko, bertatik
trenez berriz itzuli ahal izateko. Batzuetan etxeko "pas-
tor alemana" hartuta abiatzen zen, baina behin zaku-
rra ez atzera ez aurrera gelditu omen zitzaion, lehertu-
ta, eta Gabiria herrian utzi zuen bere bidea jarraitu ahal
izateko. Hurrengo egunean Simon anaiak kotxez jaso
omen zuen zakur gizarajoa

Euskal herriko bide guztiak oinez egin ditu, eta inoiz ez
omen du sustorik eduki, nahiz eta gaez ibiltzea gusta-
tu. Eta inoiz ez omen du minik hartu, aldiz, jende ona
eta laguntzeko prestua aurkitu du. Askotan, nonbaiten
afaltzeko gelditu eta bertan topatutako jendearekin hitz
egiten hasi, eta kopak hartzen bukatzen zuten –berak
ez, noski–. Herrietan horrela ezagututako jendeak bihotz
onez hartu izan du beti, eta baita beraien baserrira era-
man ere atsedean pixka bat hartzera, gero berriz, bakarrik
bere bidea jarraitzeko. Mutil lehiala izan ohi da beti.

Azken aldiz, Arantzazura 77 urtekin egin zuen buelta,
oraingo honetan Simon anaiarekin. Aurten, 84 urte
dituela, Zaratetik barrena Aiako San Pedron izan omen
da, eta ez du bere mendiarekiko zaletasuna uzteko
asmorik.

Behin, Antiguoko edadeko gizon batek
Ernion esan omen zion erretzea gustu-
koa zuela, eta mendira joateari utzi egin-
go ziola, ezin zituelako aldapak ondo igo.
Baina Jose Antoniok mendira joaten segi
nahi du bere 84 urtekin. Ahal duen neurrian,
noski, bakarrik ez duela joaterik badaki.
Aspaldi honetan Simon anaia edo bere ilo-
barekin abiatzen da.

Etxea konpontzen ari direla, pare-
tan plaka txiki bat jartzeko
asmoa omen du. Bertan jarriko
du han jaioa dela mendizale
amorratu bat Jose Antonio
izenarekin.

Guk uste dugu gizon zorion-
tsua izan dela, beti gozatu
duelako gehien gustatzen
zitzaionarekin: gure lurra
oinez ezagutzea. ■

Amona

Gorpuzkeraz txikia zen. Behin ere ez zen pisu handiko. Ibilera arina zuen. Primerako osasuna izan zuen beti, eta urteetan aurreratua zela hil zen. Bizitza neurritsua eraman zuen. Ibilaldi luzeak egin beharra egokitu zitzaion, eta ez, noski, kirola egiteagatik. Txikitandik hasita, diotenez, egoera gogorrek jasan behar izan zituen bere bizitzan.

Psikiko, moral eta espiritualki oso hornitua zen. Zuhurtzia, emandako hitzarekiko leialtasuna, lanerako grina, behartsuekiko eskuza-baltasuna, buru argitasuna, pairamena, arazoei aurre hartzeko azkartasuna izan ziren, besteak beste, haren ezaugarri aipagarrietako batzuk.

Biloba baten amabitxi izan zen bataioan. Hori dela eta, aparteko xera izan zion bere besoetako mutikoari. Eta guztiz jainkozalea izaki, onena zeritzona opa izan zion bilobari, hau da, erlijioso eta apaiz bizitza. Eta horixe irakatsi zion beti, baina mutikoaren askatasunari zor zitzaion begirunea inoiz ahaztu gabe.

Azkenean, ordea, seminariorako bidea hartzea erabaki zuen mutikoak.

Eta amonak gogo hori gauzatzen lagundu zion. Beharrezko zitzaion guztia eskuratu, eta berak lagundu zion seminariora.

Gerora, maiz joaten zitzaion ikustera, adore emateko. Otoitz egiten zuen bokazioan iraun zezan. Bere bilobaz hitz egiten zuen leku guztietan. Eta atsegin handiz izan zen bilobaren amabitxi bigarren aldiz haren lehen meza berrikoan.

Laurogei eta hamar urtetik gora zituela hil zen amona. Eta bilobak, urte asko igaro diren arren, esker onez beterik gogoratzen du oraindik. Batez



ARRITZAGA BASERRIA

Amona biloba txikiena magalean duela.



ARRITZAGA BASERRIA

Amona, semea, erraina eta Jesus Mari Aranzabe, biloba.

ere, aitortzen du, amonari zor diola, giza mailan, bere apaiz eta erlijioso bokazioa eta honek berekin ekarri dion guztia. Eta amonaren alde errezatzen du egunero. Ez du ahaztuko inoiz nolako hunkipen eta emozioz eman zuen haren hileta meza eta nola zirrarez lagundu zion hilerrira. ■

Atzo atzokoak

Somatenak:

- 1 Faustino Roteta (Antzieta)
- 2 Lucas Otegi (Areta)
- 3 Rufino Iruretagoiena (Etxabe)
- 4 Juan Jose Zubiaurre (Arritza)
- 5 Antonio Elola (Kukutegi)
- 6 Bernardo Aranzabe (Albiztegi)
- 7 Gaspar (Leteberriko morroia)
- 8 Migel Gabirondo (Katalandegi)



Alkiza - Asteasu errepidearen inaugurazioa:

- 1 Jose Mari Agirreurreta (Garmendi-azpi)
- 2 Gregorio Goenaga (Garmendi)
- 3 Rufino Iruretagoiena (Etxabe)
- 4 Jose Otegi (Areta)
- 5 Antonio Roteta (Azaldegi Etxeberri)
- 6 Don Ignacio Otegi (apaiza)
- 7
- 8 Juan Bautista Zabala (Apaiztegi)
- 9 Juan Bautista Altuna (Etxesagasti)
- 10 Don Antonio Lizarraga



Berandoingo Inazio Iguaran Frantziskotarraren meza berria, 1938an:

- | | |
|---|--|
| 1 Garaikoetxeko Juanito Urruzola | 16 Inazio Iguaran frantziskotarra, |
| 2 Garaikoetxeko Manuel Urruzola | meza berriaren emailea |
| 3 Gabillaneko Pantxika Iguaran | 17 Berandoingo Ramon Iguaran aita frantsesa |
| 4 Gabillaneko Antonio | 18 D. Ramon erretorea |
| 5 Bentzalagako Juliana Urruzola | 19 Iparragirreko Benita Iguaran |
| 6 Bentzalagako Josepa Agustina Ugartemendia | 20 Berandoingo Kontxa Iguaran |
| 7 Eulako Antonia Elustondo | 21 Berandoingo Dolores Iguaran |
| 8 | 22 Iparragirreko Juanita Beobide |
| 9 Berandoingo Balentina Urruzola | 23 Iparragirreko Luis Beobide |
| 10 Bengoetxeko Bernardina Iguaran | 24 Eulako Santi Iguaran? |
| 11 Berandoingo Isidro Iguaran | 25 D. Angel Garmendia apaiza |
| 12 Eulako Santi Iguaran? | 26 |
| 13 Garaikoetxeko Dorotea Iguaran | 27 Bengoetxeko Tiburtzio Iraola |
| 14 Iparragirreko Karmen Beobide | 28 Berandoingo Paulo Iguaran |
| 15 Berandoingo Maria Beobide ama | 29 Arritzagako Jesus Mari Aranzabe frantziskotarra |



Alberdi-Larrarte Altzorbeko sendia:

- 1 Inazio
- 2 Antonio Alberdi
- 3 Dionisio
- 4 Paulo
- 5 Brigida
- 6 Joxepa Juana Larrarte
- 7 Felix
- 8 Anastasio



Alkizar batzuen gogo-jardunak:

- | | |
|------------------------------------|---|
| 1 Mateo Aranburu (Urruzola) | 8 Antonio Roteta (Azaldegi-Etxeberri) |
| 2 Pedro Aranzabe (Urruzola berri) | 9 Pantaleon Iruretagoiena (Leteberri) |
| 3 Tiburzio Iraola (Bengoetxea) | 10 Jose Angel Goenaga (Ikili) |
| 4 Pablo Iraola (Apaiztegi) | 11 Ignacio Maria Ugartemendia (Bentzala) |
| 5 Gregorio Goenaga (Garmendi) | 12 Francisco Uzkudun |
| 6 Juan Cruz Urruzola (Garaikoetxe) | 13 Francisco Uzkudunen anaia |
| 7 Jose Otegi (Areta) | 14 Pantaleon Iruretagoienaren anaia (Leteberri) |



Katalandegiko sendia:

- | | |
|--------------------------------|----------------------------|
| 1 Aurea Saizar | 10 Jesus Gabirondo |
| 2 Josefina Gabirondo | 11 Santi Gabirondo |
| 3 Dorotea Aranzabe | 12 |
| 4 Migel Gabirondo | 13 Juan Bautista Gabirondo |
| 5 Maria Jesus Gabirondo | 14 Josepa Anttoni Tolosa |
| 6 Sagrario Gabirondo | 15 Pedro Gabirondo |
| 7 Inaxi (Anoetako Zentralekoa) | 16 Raimundo Gabirondo |
| 8 Jose Gabirondo | 17 Maria Gabirondo |
| 9 Angeles Gabirondo | 18 Luisa Gabirondo |



Bengoa-Legarra Zumitzetako sendia:

- | | |
|-----------------------|------------------|
| 1 Markos semea | 6 Demetrio semea |
| 2 Emeteri alaba | 7 Julian semea |
| 3 Luziano Bengoa aita | 8 Maritxu alaba |
| 4 Teodora Legarra ama | 9 Asun alaba |
| 5 Joxe Mari semea | 10 Begoña alaba |



Otegi-Sarasola Arpideko sendia:

- | | | |
|---------------|--------------------|-----------------|
| 1 Jose Miguel | 6 Felipe | 11 Kontxita |
| 2 Eleuteria | 7 Maritxu | 12 Pedro (aita) |
| 3 Patxi | 8 Mariano | 13 Felix |
| 4 Antonio | 9 Rufina | 14 Urbana |
| 5 Marcelino | 10 Seberiana (ama) | |

Lortxina

Bengotxeko legarratarrek XVIII. mendean eraikitako baserria da. Lortxinatzat ezagutzen den eraikuntzak izen eta grafia ezberdinak eduki ditu: Lerchunaga, Lertxuna, Lorchina eta Lortxina. Bertako biztanleen abizenak, berriz, Legarra, Urkia, Olasagasti eta Mendi-zabal. XX. mendean Bengotxeko borda beza-la erabilia izan da.



Mariategi

Alkizako etheen lehen aseguruua gauzatu eta beren sailkapena egin zenean, 1563an, Mariategi bazen, "casa menor" deitua. Aritzetegiko Domingo herriko erretorea, 1650ean hil zenean, berriz, etxe hartan bizi zen, jabea izanik, dohain Maria Garro ilobari utzi zion. Biztanleen abizen hauek ezagutzen dira: Aritzegi, Garro, Aierbe, Alkizalete, Gorostidi eta Ugartemendia. Alkizako matrikula parrokiarean, 1851-1867 urteetan, ez zen inor bizi, baina, 1867an lehen gorostiditarrak jarri ziren bizitzen.



Mariantonena

Mariantonena baserria bazen 1563an eta, 1608an, Alkizako erregidore zen Mariantone-neko Martin. Baserriaren jabeak Aritzetegi, Alkizalete, Legarra eta gorostiditarrak izan dira, urte askotan maizterrak ere bizi izan dira, besteak beste, Saizar abizena zutenak. Haiek baserria utzi eta joan zirenean, gorostiditarrak Mariategi eta Mariantonena bi baserrien jabe egin ziren.



Olaa edo Errota-zarra

Olaa edo Errota-zarra aspaldikoa da, agian lehen Egurrola zena gero Olazarra bilakatu zen. Gaurko eraikuntza, 1764an, Zumitzako Jose eta Antzietako Julian Rotetak eraiki zuten. Goiko errota, Errota-zarra (bi errotarri zituen) eta Errota-berri edo Olaberria Udalaren ondasunak izan ziren. XIX. mendean beste herri sailekin batera, errota guztiak enkantean jarri eta pribatizatu egin ziren. 1851-1867 urteetan, Olazarran Alargunsoro eta Esnal bizi ziren eta Olaberrian Beloki eta Gorostidi. XX. mendeko errotariak, berriz, Ezama, Goenaga eta Urruzolako aranburutarrak izan ziren eta gaur Errota-berri Zabala eta Igurane, Olaa Donostiako Araiz, Bereziartua eta Bidegainek erabiltzen dituzten, eta Goiko errotan Aranburu eta Tapia familia bizi da.



Alkizako baserriak



Otsamendi

Alkizaleteko Graziak, 1583an, herriko erretorea hautatzeko Otsamendiko botoa eman zuen. Hurrengo mendean bi Otsamendi, Goikoa eta Behekoa edo Azpikoa baziren, gainera, Osamendi "de suso" eta "de yuso" bezala agertzen dira. Biztanle eta jabeen artean abizen franko dokumentaturik dago: Alkizalete, Saizar, Legarra, Iguaran, Arana, Agirre, Arsuaga, Arizeta, Roteta, berriro Saizar, Aierbe, Beobide, Goenaga eta Mendiola.



Pedrojoane edo Gorostiaga

Aritzetegiko Aranburutarrek Gorostiaga, Gorostidi edo Pedrojoane izeneko baserria eraiki zuten 1760 aldera eta Frantzisko Alzelay maizterra bizitzen jarri zen eta 1851-1867 urteetan, berriz, Jose Muñoa eta Antonio Rezola senar-emazteak hiru seme-alabekin bizi ziren. Larrunbide-etxeberriko larrartetarrak handik Larraulera joan zirenean, hutsik geratu eta gaur bordatzat darabilte jabeek.



Perurena

Peru edo Perurena baserria dokumentuetan oso berandu agertzen da, Alkiza 1731n udalerrri egin zenean alegia, 1563an ordea, bi Alkizalete baziren. Haietakoren bat ez ote zen Peru? Perurena legarratarrekin erabat loturik egon da, beste batzuen artean Joan Bautista Legarra erretorearekin, "casa nativa mia de Perurena" baitzioen, bertan bizi izan zen eta Donjuanenea aspaldiko eskola eraiki zuten. 1730-2009 urteetan Legarra, Aranburu, azkenik, 1922an, Krispin Sorarain Zizurkildik etorri eta, gaur soraraindarrak, Lasa eta Iriarte bizi dira Perun.



Saletxe

XIX. mendeko baserri berria da, lehenik, Aginaga-Saletxe bezala agertu zen elizako liburuetan, hots, Aginagako hirugarren etxe bizitzatzat. Artsuaga, Tapia, Goenaga eta Garaiburu abizena dutenak bizi izan dira etxe horretan.



Sarobe

Arpideko Joan, 1583an, erretore aukeratzeko Sarobe-ko Joanes Etxeberriak botoa eman zuen eta baserri hartan biztanle hauen abizenak aurkitu dira: Sarobe, Etxeberria, Saizar, Intxausti, Zelaia, Agiñalde eta azken aldi honetan Apaiztegikoek erabilia izan da.

Urrezko ezteiak

Duela hiru hilabete eskas ospatu zituzten Segundo Saizar eta Maria Aierbek beren urrezko ezteiak, maiatzaren 30ean, hain zuzen ere. 50 urte ezkontuta, hau meritua!!

Alkizarrak ditugu biak, Segundo, Otsamendi baserrikoa eta Maria edo Maritxu, gehienek deitzen dioten bezala, Etxabe-txikikoa; beraz, betidanik elkar ezagutzen zutelara esan behar.

Segundo baserrian aritzen zen lanean, ezkontu aurretik Irurako Etxezarreta Papeleran hasi zen, baina garai hartako asko bezala baserriko lanei erabat utzi gabe. Hasieran lanera oinez joaten bazen ere, 30 urterekin zenbait gaztain makatza saldu eta 30.000 pezeta jaso ondoren, 21.000 ordainduta motor bat erosi zuen hango joan-etorriak egiteko; gaur egun bi gurpileko altxor zahar hura, bere ISO-a, oraindik ere jasota dauka.

Maritxu, berriz, neskame aritzen zen batean eta bestean, Zarautzen, Tolosan, Madrilan...

1959ko maiatzaren 30ean ezkontu ziren, Segundok 32 urte zituela eta Maritxuk 28; egun berezia izan zen hura, Alkizan 3 bikote ezkontu ziren

egun horretan, batetik Lete-berriko Agustina eta Manuel Odriozola eta bestetik Segundo eta Maritxu, eta Juan Mari eta Mari.

Azken bi bikoteek batera ospatu zuten beren ezkontza, berezia benetan, anai-arrebak, anai-arrebarekin ezkontu ziren, Segundo eta Mari, eta Juan Mari eta Maritxu anai-arrebak baitziren.

Jende asko bildu zen ezkontza hartan, hori dela eta bazkaria udaletxe-ko aretoan ospatu zuten. Ezkon bidaia Madrilera egin zuten bi bikoteek elkarrekin, trenez joan omen ziren hara astebete pasatzera, Maritxuk aurretik bolada batean bertan lan egin zuenez, pixka bat ezagutzen baitzuen.

Segundo eta Maritxu Otsamendi baserrira ezkontu ziren eta han jaio ziren beren lehenengo 3 seme-alabak, Gema, Eleni eta Mikel; azken honek 10 hilabete zituela Herriko Ostalua hartzea erabaki zuten eta bertan jaio ziren beren azken bi alabak, Ana eta Marijo. Ostaluan 20 urte eman zituzten eta lan asko egin zuten, beti ere familiako laguntzarekin, Jose Cirilo Saizar, Otsamendiko aitona, ere beraiekin bizi izan zen.

1985ean baserrira itzuli ziren eta han taberna jarri zuten, Otsamendi taberna, hau iazko udan itxi zen 22 urte luzeren ondoren.

Gaur egun 7 biloba dituzte eta haietako batek, Amaiak, aitonari eta amonari beren urrezko ezteietan eskainitako bertsoak dituzue honako hauek; zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez.

*Elkarri lagunduz ta
elkar asko maitez,
ez du askok irauten
horrenbeste urtez.
Maitemindu zineten
bihotz bete-betez
zorionak bikote
gu guztion partez.*

*Orain badaukazue
famili eder bat
ta hori ikusita
pozten naiz erabat
lau neska daukazue
ta mutil bakar bat
famili ederra da
hori ziur daukat*

*Orain bizi zarete
herri lasai baten
inurriak bezala
zabiltzate lanen
beti lanean eta
beti re sasoi
ez al zarete bada
horretan aspertzen*

*Orain dela urteak
ezkontu zineten,
hori ospatzen dugu
gu denok gaur hemen
jarri zituzuela
indar eta kemen
eta bizi zarete
zoriontasunen. ■*





Alkizako Jaiak 2009

IRAILAK 3 Osteguna

Arratsaldeko 4etan Haur Jolasak festei hasiera emanez

Ondoren Txan Magoa

Gaueko 9etan Herri afaria Ostatu jatetxean

Gaueko 11etan Trikitixa

IRAILAK 4 Ostirala

Mozorroen eguna

Kalejira eta poteoa egingo da.

Gaueko 9etan Barrikotea

Gaueko 11.00etan BERTSOLARI JAIALDIA:
S. Lizaso, A. Egaña, M. Lujanbio,
J.M. Irazu A. M. Peñagarikano,
I. Zubeldia.

Gai jartzailea: Unai Elizasu

Ondoren Bidebatez taldearekin erromeria

IRAILAK 5 Larunbata

Goizeko 10,30etan Herriko umeentzako txirrindulari lasterketa

Arratsaldeko 5etan Ion Zabala eta Izaskun Mendizabal zirenen oroimenez, Gazteen arteko Herri kirol Saioa: Alkiza Anoetaren aurka

Ondoren Sagardo dastaketa izango da denentzat

Gaueko 11etan Herri kirol saioa Aizkolari eta Harrijasotzaileekin

Ondoren Kontzertuak: 3 gabe 2, Peachy Joke, Gabondantxari, DJ Moho, DJ Xabat

IRAILAK 6 Igandea

Goizeko 10etan Meza Nagusia

Arratsaldeko 4etan Pitxoi tiraketa Erniope elkarteak antolaturik, bazkide eta herritarrentzat

Arratsaldeko 5etan Asto lasterketa herrikoia mozorrotuta

Ondoren Beteranoen arteko XVIII. PELOTA TXAPELKETAREN FINALA

Jarraian Agurtzane eta Ion Elustondoren eskutik erromeria

IRAILAK 8 Asteartea

Eguerdiko 12 etan Meza

Ondoren Gaztetxoentzat toka txapelketa

Eguerdiko 2etan Jubilatuen bazkaria Ostatu jatetxean

Arratsaldeko 5etan Brasilgo musika eta kulturaren tailerra Edson Goya-ren eskutik

Jarraian Toka txapelketa herrikoia, festeei amaiera emanez

JOSE MARI ARANZABE ETA XABIER ARTOLA

Bitxikeriak

Alkizan 2008ko abenduaren 31n, 357 biztanle zeuden erroldatuta, 2007an baino 10 gehiago. Hori horrela izateko 18 alta eta 8 baja egon ziren urtean zehar. Altak honela banatuak: jaiotzak:5, beste herrietatik etorritakoak: 13. Bajak, berriz: hildakoak, 2 eta beste herrietara joandakoak: 6.



JAIOTZAK HAUEK IZAN DIRA:

- Olatz Gorriti Torres
- Lide Altuna Aramendi
- Irina Martinez Bazna
- Maddi Auzmendi Barea
- Oier Olasagasti Iruretagoiena

HERIOTZAK, BERRIZ, HAUEK DIRA:

- Juan Jose Zubiaurre Iribarren
- Dolores Iguaran Urruzola

ALKIZAKO HAMAR EMAKUMEZKO ZAHARRENAK:

- Benita Saralegi Eizmendi 99 urte Etxabe baserrikoa
- Aurea Saizar Goenaga 87 urte Katalandegi Txiki etxekoa
- Brigida Otaegi Elizegi 86 urte Agina behekoa baserrikoa
- Isabel Urruzola Aranzabe 86 urte Elizegi baserrikoa
- Mari Karmen Zinkunegi Irigoien 83 urte Garmendi azpi baserrikoa
- Ildefonsa Amondarain Amondarain 82 urte Etxabe txiki baserrikoa
- Mercedes Aranzabe Iruretagoiena 81 urte Arritza baserrikoa
- Natividad Iraola Iguaran 80 urte Bengoetxe baserrikoa
- Carmen Cruces Perez 79 urte Don Juanena etxekoa
- Maria Ayerbe Zubiarrain 78 urte Otsamendi baserrikoa

ALKIZAKO HAMAR GIZONEZKO ZAHARRENAK:

- Jose Joakin Aranzabe Ezama 88 urte Elizegi baserrikoa
- Pantaleon Saralegi Eizmendi 86 urte Basozabal baserrikoa
- Antonio Eizmendi Saralegi 86 urte Agina behekoa baserrikoa
- Angel Arsuaga Eizmendi 84 urte Bengoetxe baserrikoa
- Jose Antonio Uzkudun Ugalde 84 urte Aizmendi goikoa baserrikoa
- Pedro Urruzola Aranzabe 84 urte Intxaurrandi aurrekoa baserrikoa.
- Juan Mari Ayerbe Zubiarrain 84 urte Etxabe txiki baserrikoa
- Raimundo Gabirondo Tolosa 83 urte Katalandegi baserrikoa
- Segundo Saizar Goenaga 82 urte Otsamendi baserrikoa
- Antonio Otegi Sarasola 81 urte Arpide baserrikoa

eskola

Eskola txiki bat herri baten arima da. Ez da herri txiki bat bizirik ulertzen eskolarik gabe. Haurrik gabe dagoen herria itzalita dago eta gure Alkiza honetan eskola zerbitzu hori bermaturik dugunez aspaldi arrotsentitzen gara gure herriaz. Gure eskolan adin eta maila desberdinetako umeak gela berean egonik, merkatuan dauden testu liburu zein proiektu, eskola txikietako maisu-maistrak sortutako ariketa eta ekinzekin bateratu eta moldatzen ditugu. Haurrek lantzen dituzten ariketak beraien beharrei egokituta daude ("a la carta"). **Eskolako taldeetan adin desberdinak egoteak zer ekartzen du?**

1. Zaharrenek txikiei laguntzerakoan, erakusterakoan, haien burua "andereño" modura estrukturatu

behar dute horretarako estrategiak erabiliz eta ikasiz. Guztiz baliotsua gerorako!!

2. Elkarren arteko interakzioan errespetua, estima eta beste baloreak lantzen dira, dudik ez izan!!
3. Urtez urteko taldekatze berrietan umeen rola (lotsagabea-humila, lotsatia-ausarta, zapaltzailea-zintzoa...) aldatuz joaten dira. Nortasuna sendotzeko ezin hobea!!

Azken finean, lana egiteko garaietan eskola txikieta-ko baliabideak, ugariak, bat-batekoak askotan, funtzionalak eta beraien talde anitzetara egokituak dira.

Hona hemen "hizkuntza" arloan era horretan landutako gai bat: "komikia".

Handien gela:

Handien gelakoek, hau da 1. eta 2.go mailakoek binaka landu zuten testua: komiki desberdinak aztertu, haien ezaugarriez (biñeta, bokadilloa...) jabetu eta komikian erabiltzen den terminologia (onomatopeiak...) ikasi.



Alkizako Herri Ikastetxetik



eskola

Ertainen gela:

Ertainen gelakoek, hau da 4 eta 5 urtekoek biñeta hutsetan komiki bat asmatu behar izan zuten. Talde honetako zaharrenek ekarpenak eta ezagutzak zabalagoak zirenez, txikienek beraiengandik jaso zuten informazio asko. Aldi berean, zaharrenek 4 biñetekin jorratu zuten testua hizki konbentzionalaz eta txikienak aldiz, 3 biñetan gehiago oinarritu dira testuaren koherentzian eta ez grafian.



Alkizako Herri Ikastetxetik



Txikien gela:

Txikien gelakoek, hau da 2 eta 3 urtekoek, ipuin eta komikien arteko konparazioa egin dute. Komiketako "bokadiloak" beraien argazkien gainean ezarri eta esan nahi zutena, hantxe idatzi dutelarik.



eskola



Ongi etorriak

Jakingo duzuen bezala Alkiza hazten ari da, eta eskola ere bai. Aurtengo kurtsoan 7 ume berri matrikulatu dira Herriko Eskolan! Beraz txikien gelan, hau da, 2 eta 3 urtekoen gelan, 11 ume izango dira guztira kurtsoan zehar.

Datozen lerrotan 2 urtekoen gurasoei eginiko elkarrizketaren laburpena duzue irakurgai:

1. Orain arte zeintzuk izan dira zuen seme alabak herri honetan hezteko topatu dituzuen erraztasunak edo zailtasunak?

Egia esan, zailtasunik ez dugu bat ere topatu. Aldiz, erraztasunak begi bistakoa dira: Irakasleen laguntza, ingurunea oso lasaia dela eta denak ezagutzen direla.

2. Herriko Eskolatik zer da gehien erakartzen zaituena?

Gehien gustatzen zaiena haur gutxi edo eta talde txikiak izatea da. Guraso gehienei ere eskola etxetik gertu egoteak izugarri ona iruditzen zaie.

3. Zergatik erabaki zenuten haurra eskola honetara bidaltzea eta ez beste batetara?

Garrantzia handia eman behar zaio herrian bertan hezteari, hemen bizi gara, Alkizan, eta ez Anoetan edo eta Billabonan. Gure umeen lagun-giroa bertan dago, beraien anai-arreba eta lehengusuak eskolan bertan ikusten dituzte... Alkizako eskolan lanerako adin desberdineko talde txikiak egiten dira eta lan-taldeak, zerbait ona badu, sortzen den kooperatibismoa eta partaidetza da.



Andrea




Amalur



Iraide



Julene



Markel



Oinatz



Xuhar

Argazki rallya 2008

lazko Aiztondoko argazki rallyan "Baserría" gaia jarri genien argazkilariei Alkizara etorri zirenean. Hauek dira han atera ziren argaztieko batzuk. Ea asmatzen duzuen zein baserri edo baserrietako irudiak diren agertzen direnak.





Udalaren txokoa



Don Juanena etxea atzetik ikusita, udal almazena eraiki aurretik.

Aurtengo egitasmoak

Alkizako Udalak 2009ko urtean garatu nahi dituen proiektu batzuen berri ematera noakizue.

1.- "Don Juanena edo maisu-etxe" bezala ezagutzen den etxea eraberritzea, "Centro Social" moduan erabiltzeko. Foru Aldundiak diruz lagunduko du, eta horretarako sortu duen Etorlur enpresa izango da kudeatuko duena proiektu hau.

Proiektu hau honela dago aurreikusia: beheko solairuan gimnasia egiteko gela bat izango du aldagela eta guzti, eta medikuaren gela egongelarekin (berriro ahaleginduko gara lortzen asteen behin gutxienez etortzea herrira). Lehenengo solairuan kultura eta bilera gela eta Gizarte Ongizateko bulegoa egongo dira. Bigarren solairuan larrialdietarako bi apartamentu izango dira. Ganbarak, azkenik, almazena eta bi logela edukiko ditu. Don Juanena eta Udalaren artean dagoen partean, bietarako balioko duen igogailua jarriko da. Berritze lanak udazken aldera hastea aurrei-

kusten da, eta 641.000 euroko aurrekontua izango du gutxi gora behera.

2.- Fosa septikoaren proiektua ere aurten egingo da. Jadanik Foru Aldundiarekin eta lurraren jabearekin sinatuta daude beharrezko konbenioak, eta Bida teknologia berria erabiliko dela izango da bere ezaugarriak nagusiena. Foru Aldundiaren diru-laguntza izango du, eta 140.000 euroko aurrekontua du.

Bi proiektu horiek egin ahal izateko, Udala 200.000 euroko mailegua negoziatzen ari da hainbat finantza entitaterekin. Baita ere, Don Juanenaren proiektu hori Erein programaren bidez, Europako diru-laguntza eskaeretan sartuta dago. Kutzak ere zehaztu du bere ekarpena zenbatekoa izango den.

Baita ere Zapateroren diru-laguntza dela-eta, beste bi proiektu aurrera eramango dira. Lehenengoa, ur depositua eta ur sarearen zati bat berritzea da. Biga-



X. ARTOLA

Etxabeguren baserria, bidearen haseran.

renak, berriz, Etxabeguren-ikili eta Errekalde-Saletxe bideen zatiak konpontzea kontenplazten du, aurrekontu hauekin: lehenengoak 34.670,54 euro eta bigarrenak 22.319,46 euro.

Eskola berriaren proiektuari buruz, berriz, esan lehenengo asmoaz gain, beste proposamen batzuk aztertu dituela Udalak, eta luzaro baino lehen akordio batzuetara iristea espero duela.

UDALAREN AURREKONTUAK 2009

2009 urterako Alkizako Udaleko aurrekontu orokorra jendaurrean jartzeko arauzko epea amaitu eta inolako erreklamazio zein oharpenik jaso ez denez, 2009ko martxoaren 31n Udalbatzarrak harturiko akordioaren arabera, aurrekontua behin betirako onartuta geratu da.

SARREREN EGOERA

1.- Zuzeneko zergak	48.300,00 €
2.- Zeharkako zergak	6.000,00 €
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	36.152,00 €

4.- Transferentzia arruntak	273.150,00 €
5.- Ondarezko sarrerak	5.555,00 €
7.- Kapital transferentziak	75.302,45 €
9.- Finantza pasiboak	245.583,66 €
GUZTIRA	790.043,11 €

GASTUEN EGOERA

1.- Pertsonal gastuak	113.310,00 €
2.- Ondasun arrunten erosketak	107.950,00 €
3.- Gastu finantzieroa	150,00 €
4.- Transferentzi arruntak	74.997,11 €
6.- Inbertsio errealak	493.636,00 €
GUZTIRA	790.043,11 €

Besterik gabe, eta egitasmoa zehaztu heinean informazioa helaraziko zaizuela adieraziz, agurtzen zaituztet. ■

Joan den urteari begira

JOXEAN APAIZAREN AGURRA

Irailaren 21ean, igandea, eman zuen Joxean Larrañaga apaizak Alkizan azken meza. Gure herrian zortzi urte eman ondoren, Oñatira joan zen. Hori zela eta, hilaren 13an agur bazkaria egin zitzaion Alkizako Ostatu jatetxean. Bertara 40 bat lagun bildu ziren.

MADDI AUZMENDI JAIO ZEN

Irailaren 21ean, arratsaldeko 3:00etan Maddi Auzmendi Barea jaio zen. Maddi Argi eta Iñakiren lehen alaba da. Lehendik bi seme dituzte: Aner eta Iñaki.

APAIZ BERRIA ALKIZAN

Joxean Larrañaga joan zela eta, apaiz berria etorri zen irailean. Aramako da jaiotzez, eta urte askotan Kolonbia aldean ibilia da misio lanetan. Pello du izena, eta 70 urte ditu. Irailaren 28an, eman zuen lehen aldiz meza Alkizan. Ongi etorria izan dadila.

JUBILATUEN IRTEERA VIANARA

Urriaren 21ean, asteartea, Vianara joan ziren herriko jubilatuek. Goizean, Ondarre bodega ikusten izan ziren. Gero, Logroñotik buelta bat eman ondoren, Vianara abiatu ziren. "Royal Menu" jatetxean bazkaldu ondoren, Viana bisitatu zuten.

TXERRI ESKULTURAK ETA IRUDIAK EGITEA

Urriaren 25ean, larunbata, goizeko 10:00etan Plazan bilduta, txerri eskulturak eta irudiak egin zituzten haurrek eta helduek, Koldo Jauregiren gidaritzapean. Eskultura eta irudi horiek ikusgai egon ziren Kultur etxean San Martinetan egin zen erakusketan.

JUBILATUAK ZUMARRAGAKO FERIRA

Abenduaren 13an, larunbata, jubilatuek Santa Luzia-ko ferira joateko aukera izan zuten. Goizean ferian bueltatxo bat eman ondoren, arratsaldean, Legazpi ezagutu zuten.

IKER URRUZOLA GIPUZKOAKO TXAPELDUN

Azaroaren 8an, larunbata, Leitazaranen jokaturako Gipuzkoako Oilagor txapelketan, Erniope Ehiza Elkar-terko Iker Urruzola Zuriarrain, alkizarra, gertatu zen txapeldun, bi oilagor botata. Zorionak Iker.

ALAITZ ARANZABE SARIDUNA EITB-N

Azaroaren 16an, igandea, EITB-k zuzenean emititu zuen lau t'erdiko txapelketako pilota partiduan egiten den telefonoz bidezko apustu jokoan, Alkizako Alaitz Aranzabe Saralegi suertatu zen irabazle. Dakizuen bezala, parte hartzaileek zein pilotari izango den irabazle asmatu behar dute. Ondoren, asmatzailleen artean zozketa egiten da, eta egokitzen zaionari 400 euroko saria ematen zaio. Bigarren aldia da Alaitzek sari hau irabazten duela. Zorionak Alaitz.

EGURALDI KAXKARRA BAINA GIRO BIKAINA SAN MARTINETAN

San Martin eguneko mezarekin hasi zen guztia. Egun berean, arratsaldez, haur jolasak eta merienda izan ziren. Eguraldiak ez zuen lagundu aurtengo azaroaren 11n, eta badirudi iragarri egin nahi zigula asteburuan gertatuko zena.

Eta hala gertatu zen. Ostiralean txerria hiltzeko tresneriaren erakusketa zabaldu zen.

Aste osoan zehar zenbait lagun lanean aritu ondoren, zur eta lur uzteko moduko erakusketa antolatu zuten. Ikusgarria, dotorea, bikaina. Aste bukaera osoan zehar egon zen zabalik erakusketa, eta ez zen ikuslerik falta bertan. Bideo gelan txerria hiltzeari buruzko argazkien emanaldia ikus zitekeen. Arratsaldeko 7retan Amixuriko kantuzaleak bildu ziren, eta euria gogotik ari zuela kontuan izanda, tabernatan kantatu zuten gehienbat. Ondoren, afari modukoa egin zuten Elizegin.

Larunbatean, txerri harrapaketa izan zen arratsaldeko 5ak eta erditik aurrera. Hasieran, hotza medio, ez zen jende askorik, baina azkenerako bildu zen koadrila ederra, eta izugarri gozatu ahal izan zuten haurrek, gazteek eta baita helduek ere. Parte hartzea handia izan zen, eta pilota partiduak zeudela eta, bukatu egin behar izan zen guztia 7ak aldera. Lehia estua eta gogorra izan zen, eta azkenean ustekabean, Jon Gorritik eta Gorka Goikoetxea helduek (Jose Ignacio eta Mattin Gorostidiren marka hobetu ostean) irabaziko zutela zirudienean, azken bikoteak segundo batean hobetu zuen haien denbora. Bikote hori Jokin

Saralegi eta Martin Lizardi gaztetxoek osatzen zuten. Jarraian, zortzi urtetik beherako haurrek izan zuten txerritxoekin une batez jolasean aritzeko aukera. Eta arratsaldeko unerik garrantzitsuenetakoa Guraso Elkartek antolatutako zozketa izan zen. Orduan bai, orduan denak zeuden, ez zuten inork alde egiten. Ikusmira ikaragarria zen. Beatriz Ruiz eta Mari Sol Urretabizkaia izan ziren zortea alde izan zutenak, eta badute aurten zer hazia. Euriak nahiko errespetu azaldu zion ekintza honi, eta hau bukatu eta segituan berriro bisita egin zigun.

Euri artean, beraz, 7retan San Martinetako VI. lau t'erdiko pilota txapelketaren finalak jokatu ziren. Lehenik hirugarren eta laugarren postua erabaki zuen partiduan Josu Eizmendi nagusitu zitzaion Jon Altunari. Eta final handian, kontuak nahiko paretsu joan eta gero, azken partean Igor Aranzabek gaina hartu zion Haritz San Sebastiani. Aurtengo txapeldua, beraz, Igor Aranzabe dugu.

Gaueko 10etan, kanpoan euria ari zuela, Mus eta Eskoba txapelketak jokatu ziren. Azpimarratzekoa izan zen aurtengo partaidetza. Giro aparta zegoen bai Elizegin (eskoba txapelketa), baita Ostatun ere (mus txapelketa). Partida asko jokatu ondoren, eta zegozkien kanporaketen langa pasata, musean Alfonso anaiek Ignacio Iruretagoiena eta Ramon Aranzaberen aurka aritu ziren. Ramon eta Ignacio gertatu ziren irabazle. Eskoban berriz, familia arteko finala izan genuen. Amaia eta Irati (iazko txapelduak (euren ilobak diren Gorka eta Aitor Sorarrainen aurka aritu ziren). Gaztetxoak nagusitu ziren, eta beraz, aurtengo txapeldu gertatu.

Igande goizean, 12ak aldera, euria ere tartean, 2. kamioi gupil lasterketa egin zen. Partaidetza iazkoa baino dezente kaxkarragoa izan zen, sei izan baitziren parte hartzaileak: Eneko, Unai, Julen eta Aitor Sorarrain, Imanol Ugalde eta Balduino Alfonso. Aitor Sorarrainek hartu zuen aurea hasiera-hasieratik, baina gertuan zituen Imanol eta Balduino. 500 bat metro falta zirenean, hirurak parean zeuden, baina Aitorrek berriz eraso jo, eta Balduinok bakarrik jarraitu zion, eta ez bakarrik jarraitu, baizik eta aurea hartu eta irabazi. Bigarren beraz, Aitor Sorarrain izan zen (ikusle gehien harridurarako, iaz askoz denbora kaxkarragoa egin baitzuen), eta hirugarren Imanol Ugalde. Julenek, Enekok eta Unai ere, sekulako kirol erakustaldia eginez lortu zuten euria, lainoa, gupil erraldoia eta elementu guztiak aurka zituztela helmugako marra igarotzea, eta egundoko denbora erregistroekin gainera. Bejondeiela. Azpimarratzekoa da lehen hiru sailkatuek hobetu zutela iazko marka. Helmugan giro bikaina zegoen, eta ez zen animo faltarik izan.

Ordu bietan, euria kanpoan, herri bazkaria izan zen. 140 lagunetik gora hartu zuten parte, eta ez zen janari faltarik izan inorentzat. Egundoko lana egin zuten batzuek janaria prestatzen, guztia bertan egin baitzen. Eguraldi txarrari aurre egiteko ez zen teknologiak eskaintzen dituen aurrerapenik falta, baina umorea eta giro ona izan ziren, benetan kanpoko ahaztarazi zutenak. Bazkalostean, kantuak, bertsoak... denetik izan zen.

Iragarrita zegoen toka txapelketa, euria zela eta, ez zen jokatzeko modurik izan.



X. ARTOLA



X. ARTOLA

OIER OLASAGASTI JAIO ZEN

Azaroaren 20an, osteguna, Oier Olasagasti Iruretagoiena jaio zen. Oier Lurdes Iruretagoiena (Etxabe baserrikoa) eta Iker Olasagastiren (oriotarra) lehen semea da. Perualdeko urbanizazio berrian bizi dira. Zorionak.

1,2,3 INAXITOREN ANTZEZLANA

Azaroaren 21ean. arratsaldeko 5:30ean, Kultur Etxeko balioanitzeko gelan, 1,2,3, Inaxitoren 3. zatia eskaini zuten. Dakizuen moduan, bertsoa, umorea, eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna da Xabier Sukia, Ibai Esoain eta Gorka Tolosak arrakasta handiz herriz herri eskaintzen dutena. Ikuskizunak Kutxaren babesia izan zuen. Alkizan, iazkoaren moduan arrakasta handia izan zuen, eta ikusleak oso pozik geratu ziren.

GOSPEL MUSIKA ELIZAN

Abenduaren 12an, ostirala, gaueko 22:00etan hasita Gospel musika emanaldia izan zen Alkizako elizan. The Upper Room Gospel izeneko taldea izan zen emanaldia eskaini zuena, bi donostiarrez osatutakoa. Giro hotza izan arren, berehala berotu zen, entzuleen laguntzarekin. Hirurogei bat lagun bildu ziren, ez ohiko kopurua horrelako ekitaldietan Alkizan. Jendearen erantzuna zela eta, musikariak oso gustura joan ziren.



L. NUÑEZ

KOLDOBIKA JAUREGIREN ERAKUSKETA DONOSTIAN

Abenduaren 8ko astean zabaldu zituen ateak Donostiako Ekain galerian Koldobika Jauregiren erakusketak. Dakizuenek Koldobika eskulturagile alkizarra, fama handiko artista da, eta hori dela eta, jende asko inguratu zen bertara. Ekain Galeria Donostiako Konstituzio plazaren inguruan dago. Erakusketa zabalik egon zen astelehenetik larunbatera, otsaila bitartean.



L. NUÑEZ

POSTRE LEHIAKETA ESKOLAN

Abenduaren 23an, asteartea, jokatu zen Alkizako Eskolan ohikoa bihurtu den Postre lehiaketa. Hiruhilekoari amaiera emateko giro ezin hobean egin zen baz-

karia herriko plazan, eguraldiak ondo baino hobeto lagunduta. Bazkari ostean egin zen Postre lehiaketa. Irabazlea Amaia Ibarbia izan zen. Bigarren sailkatua, berriz, Olatz Mateos, eta hirugarrena, Idoia Aramendi. Ondoren, ez zen kanturik falta izan, eta eguzkia ezkutatu ahala, jendea ere erretiratu egin zen.



A. IBARBIA

OLENTZERO OPARIEKIN ETORRI ZEN, BETI BEZALA

Haur kopuru aldetik, azken urteetako markak hautsiz, abenduaren 24an ez zuen hutsik egin Olentzerok. Harrera beroa egin zioten, harridura eta zorion aurpegiz begiratzen zioten hurrek. Aurtengoan Olentzerok Eguberri kantez osatutako disko bana oparitu zien herriko gazteenei.



A. IBARBIA



A. IBARBIA

MIKEL LOPEZ GARAILE TORTILLA LEHIAKETAN

Abenduaren 28an, igandea, ospatu zen Gizonez-koentzat 4. Tortilla lehiaketa. Ostatu jatetxean egin zen, eta hamabi izan ziren aurkeztutako tortillak. Igandearekin egokituta, eguerdian egin zen aurtengoan. Giro bikaina sortu zen, eta azpimarratzekoa izan zen aurtengo tortillen kalitatea, bereziki, aurkezpenari dagokionean. Ohi den moduan, epaileak emakumezkoak izan ziren. Itxura oneneko tortillaren saria Jose Ignacio Gorostidik irabazi zuen. Tortillarik onena berriz, epaimahaikoen ustez, Mikel Lopezek egin zuen. Bigarren sailkatua Jose Ignacio Gorostidi izan zen, eta hirugarrena Riki Alfonso.

Bazkalostean Jose Ignaciori esker gaztainak izan ziren bertaratutakoentzat, inozentadarik faltatu gabe, jakina.

Arratsaldeko 5etan futbol partidua izan zen frontoian. 20 urtetik beherakoak, helduen kontra aritu ziren. Nabarmen geratu zen gazteek oraindik asko dutela ikasteko, are gehiago, helduen taldean, Gorka, Jon, Iñaki, Angel, Iker, Mertxe, Miren, Mariaje, eta beste batzuen kalidateko jokariak baldin badaude. Azkenean, arbitroaren laguntzarekin, noski, hamaikana berdinduta amaitu zen partidua, gazteen taldean helduenean baino jokalaria gehiago bazen ere. Edozein erara, errepikatze moduko festa egin zen. Arbitroa Joxerra Hernandez izan zen.

batzuk, berriz, ederki gozatu zuten arratsalde parte-an elurretan jolasean. Bostak aldera edo, Foru Aldundiko elurra kentzeko makina pasa zen, eta errepidea nahiko garbi utzi zuen. Bestalde, herriko langilea ere, jo eta ke aritu zen egunean zehar, errepide nagusia zein baserrietako bideak txukuntzen.



IVANOL



IVANOL

EDUKIONTZI BERRIA

Urtarrilaren hasieran sukaldeko olio jasotzeko edukiontzi laranja jarri zen martxan herrian. Orduz geroztik, sukaldeko olio edukiontzi berrira botatzen da birziklatzeko. Jakin izan dugunez, erabilera egokia eman zaio herrian, eta behin baino gehiagotan etorri izan dira hustutzeroa.

MUSIKA TAILERRA

Otsailaren hasieran, martxan jarri zen Musika Tailerra. Irakaslea Iñigo izan zen, eta bertan gustura baino gusturago aritu ziren herriko gaztetxoak.

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa Ageda bezperan, azken urteetan ohi den moduan, arratsaldeko 19:45etan hasita, Amixuri abesbatzako kideek, eta eurekin batera atera izan nahi zutenek herria kantuz eta koplez alaitu zuten.



IVANOL

ELURRA USTEKABEAN

Eguraldi iragarkapenek bestelakorik zioten arren, elurra mara-mara bota zuen urtarrilaren 8an, goiz osoan zehar bereziki. Errepidea garbitu zutelako, ez zen lehen orduetan mugitzeko arazorik izan, baina eguerdi aldetik aurrera, okertu egin ziren gauzak, eta izan ziren, autoa behean utzita etxera etorri ziren herritarrak. Eskolumeak eta, hain ume ez diren

Herriko erdiguneari itzulia eman ostean, barrikotea egin zuten Alkiza-Lete nekazalturismoan.

ALKIZAKO WEB ORRIARI AIPAMENA

“Tolosaldean Zehar” Gidan Urtarrileko alean esaten zuenez, Alkiza, Billabona eta Zizurkilgo web guneak omen dira erabilgarrienak eta gehien eguneratuta daudenak.

LAIA LARRAURI MATEOS JAIO ZEN

Otsailaren 10ean, asteartea, jaio zen Laia Larrauri Mateos, Julen Larrauri eta Olatz Mateosen bigarren seme - alaba. Famili hau Santiago Ermita bidea 3A zenbakian bizi da.

KALDEREROAK ETORRI ZIREN

Otsailaren 13an, ostirala, Kaldereroak izan genituen Alkizan. Guztia arratsaldeko 4:30ean hasi zen. Eskolako ikasleak atera bezain pronto Lete base-rrian bildu ziren haurrak, guraso eta hainbat herritar. Zartagi, mailu, pertza e.a. eskuetan zituztela, eta zingaroz jantzita herriko kaleak alaitu zituzten euren kantekin. Musika ere ez zen falta izan, ez eta berotzeko txokolate eta pasta gozo askoak ere. Iluntze aldera, berriz, helduak elkartu ziren Elizegi tabernan; mokadu bat jan, eta jaiari jarraipena emateko asmotan. Giro ezin hobean jardun eta gero, gaueko ordu txikietan amaitu zen guztia.



L. NUÑEZ

ANGEL BEOBIDE JOAN ZITZAIGUN

Otsailaren 27an hil zen Berandoain baserriko Angel Beobide. Hileta elizkizunak igandean, martxoaren 1a, arratsaldeko 5:00etan egin ziren Alkizako San Martin de Tours Parrokian,

HAUTESKUNDEAK ALKIZAN

Martxoaren 1ean, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren Alkizan ere. Hauek izan ziren emaitzak: Hautesle zentsoa: 277; Boto emaitzak: 159 (%57,40); Abstentzioa: 42, 6; EAJ - PNV: 95; ARALAR: 33; EA: 3; Ezker Batua: 3; PUM: 1; UPD: 1; Zuriak: 4; Nuloak: 19



L. NUÑEZ

IÑAUTERIAK ALKIZAN

Otsailaren 19an, ostegun gizen eguna, hasi ziren Iñauterien ospakizunak gure herrian. Eskolak egin zuen hau. Horretarako irakasle, haur eta gurasoak mozorrotuta etorri ziren. Eguraldi onaren laguntzarekin Iñauerietako hainbat dantza egin zituzten herriko plazan. Eguerdialdean amaitu zen guztia, eta asteazkena arte jai izan zuten Alkizako eskolan.



IMANOL

EHIZA TXAPELKETA

Martxoaren 1ean ere, Erniope Ehiza Elkarteko Faisan Txapelketa txakurrarekin egin zen. Bederatzi izan ziren partaideak, eta emaitzak honako hauek: 1.- Arkaitz Garaiburu, 5 piezekin; 2.- Ion Gorriti, 4 piezekin; 3.- Eduardo Roteta, 3 piezekin

JUBILATUAK OÑATIRA

Martxoaren 5ean, osteguna, irteera izan zuten Jubilatuek Oñatira. Goizez, Arantzazuko Santutegian izan ziren, eta Arrikruz kobazuloak ere bisitatu zituzten.

Soraluze jabetxean bazkaldu ondoren, Oñatiko hiri historikoa ikusi zuten.

MUNSTRUO TAILERRA

Martxoaren 7an, larunbata, Munstruo tailerra egin zen Kultur etxean, goizeko 9:00etan hasita. Bertan Maskara eta irudia landu ziren Koldobika Jauregi-ren laguntzarekin, eta gaztetxoak zein helduak izan ziren protagonista.



KOLDOBIKA

EMAKUMEEN EGUNeko AFARIA

Martxoaren 7an, Ostatu jabetxean, Emakumeen eguneko afaria egin zen. Emakumeen eguna, berez, martxoaren 8an da, baina aurten igandea zenez, bezperan ospatu zuten. Berrogeita bi izan ziren elkartu ziren herriko emakumeak, eta goizalderarte luzatu zen afalostea tarteko, giro bikainean jardun zuten.



BALDUINO

AIZTONDOKO KLASIKA

Martxoaren 8an, Aiztondoko Klasika txirrindulari lasterketak amaiera izan zuen Alkizan. Egunak euritsu argitu bazuen ere, eguraldiak errespetatu egin zuen txirrindularien esfortzua, asko izan baziren ere, gogortasuna medio, helmugara iritsi baino lehen lasterketa utzi zutenak. Jendetza hurbildu zitzaigun herrira, eta autoak zirela eta, arazotxo batzuk izan ziren. Halere, azkenean ondo baino hobeto joan zen dena. Hamaikak eta laurden aldera pasa ziren lehen aldiz Alkizatik, eta ordu biak hamar gutxiagotan heldu ziren Otsamendi ondoan zegoen helmugara. Jorge Martin Montenegro izan zen irabazlea, lasterketa gogor bati amaiera bikaina emanez.



IMANOL

MARIA JESUS GABIRONDO HIL ZEN

Apirilaren 6an joan zitzaigun betiko Katalandegi baserrikoa zen Maria Jesus Gabirondo Aranzabe, gaitotasun baten ondorioz. Aspaldi samar Zumarragan bizi zen, baina oso ezaguna zen herrian. Hileta elizkizunak apirilaren 7an, arratsaldeko 6:30ean izan ziren Alkizako San Martin de Tours Parroki-elizan.

KIROL BATZORDEA

Apirilaren 3an, ostirala, bilera izan zen Alkizako Kirol Batzordea antolatzeko. Ondorioz, honela antolatuta geratu zen batzordea: Ainara Zurutuza: Udaleko ordezkari; Itsaso Gonzalez de Leiba: Eskola kirol arduradun; Gorka Goikoetxea: Gurasoen ordezkari; Aitor Sorarrain: Erniopeko ordezkari; Julen Sorarrain: Gazte taldeko ordezkari; Balduino Alfonso: Kirol ordezkari.

KONSTRUKZIO TAILERRA

Apirilaren 4an, larunbata, goizean zehar, Koldobika Jauregiaren eskutik Konstrukzio tailerra egin zen Alkizan. Eguraldiak lagunduta, plazan egin ahal izan zen guztia. Oraingoan, kartoia zen nagusiki erabilitako materiala, eta argazkian ikus daitezkeen eraikinen arabera, egundoko arkitektoak ditugu herrian. Nork

daki Alkizan ditugun eraikuntza proiektuei aurre egiteko herrian bertan dugun soluzioa...



KOLDOBIKA

ENARA IRURETAGOIENA MUJIKA JAIO ZEN

Apirilaren 12an, igandea, jaio zen Enara Iruretagoiena Mujika. Enara, Jon Iruretagoiena eta Aitziber Mujikaren bigarren alaba da.

ALKIZARRAK TXAPELDUN AIZTONDOKO PILOTA TXAPELKETAN

Apirilaren 26an, Zizurkilen, urtero Aiztondon egiten den pilota txapelketan alebin mailan hiru herritar txapelkun gertatu ziren. Alkizarrak Manex Otegi, Mattin Gorostidi eta Aitor Sorarrain dira. Finalean aurkari gisa zizurkildarrak izan zituzten, baina kostata izan bazen ere herrikoak gailendu ziren, 16 - 9ko emaitzarekin



LOREA

MERCEDES ROTETA LEGARRA HIL ZEN

Nahiz eta aspaldi honetan Billabonan bizi zen, Iribiti baserrian jaio eta bizi izan zen Mercedes Roteta Legarra hil zitzaigun maiatzaren 5ean. Hileta elizkizunak maiatzaren 6an egin ziren arratsaldeko 18:30ean Alkizako San Martin de Tours Parroki Elizan.

TXORIMALO TAILERRA

Maiatzaren 9an, larunbata, goizeko 9:00etik aurrera, Txorimalo tailerra egin zen Kultur etxean. Hasiera batean, asmoa Ikili baserriaren inguruan egitekoa zen, baina eguraldia zela eta, lekuz aldatu zen. Ohikoa den moduan, hurrek, gazteek eta helduek hartu zuten parte, eta euren "obrak" denbora luzez izan ziren ikusgai Alkizako plazan.



X. ARTOLA

PELLO AÑORGA IPUIN KONTALARIA

Maiatzaren 7an, osteguna, arratsaldeko 5:30ean Pello Añorga ipuin kontalari ospetsua izan zen Alkizan, bere ipuinik goxoenak herriko haurrei eskaintzeko asmotan. Barnetegian aste horretan zeuden haurrak gonbidatuak izan ziren, eta kontakizuna barnetegi bertako ganbaran egin zen. Oso gustura egon ziren bai haurrak, baita bertaratu ziren helduak ere. Pello bera ere pozik joan zen bertan zeudenen harrera ezin hobea ikusita



IMANOL

AGENDA 21EKO BILERA

Maiatzaren 8an, ostirala, gaueko 10etan hasita, Agenda 21eko bilera izan zen Kultur etxean. Lehenik Foru Aldundiko teknikari batek azken hilabeteetako jardunaren laburpena egin zuen. Jarraian, antolatzaiz-

leek prestatutako zerrendari ekin zizaion. Eskola berria eta pilotalekuaren kontua izan zen bertaratu-takoek gehien jorratu zuten gaia. Partaidetza (Udaleko ordezkariet gain, 8 - 10 lagun gerturatu ziren), bikaina izan zen. Ondoren, Fosa septikoa, Don Juane-na etxean egin beharreko lanez eta irisgarritasun planari buruz aritu ziren

JON ALTUNA LAUSITZEKO EKOMARATOIAN

Alemaniko Lausitz hirian Ekomaratoia ospatu zen maiatzaren hasieran. Bertan bi euskal taldek parte hartu zuten: Gasteizko Mendizabala batetik eta Gipuzkoako Don Bosco bestetik. Dakizuen bezala, Jon Altuna Don Boscon ari da ikasketak egiten, eta une horretan Italian ari zen praktiketan. Bertatik joan zen Alemaniara. Ekomaratoia deitzen zaio ikasle taldeek diseinatutako kontsumo gutxiko prototipoen lehiaketari. Europa mailan garrantzi handia du. Jonen taldeak aurkeztu zuen prototipoaren motorra gasoilekoa da. Berrogeita hamaseigarren postuan sailkatu ziren, eta itxaropentsu agertu ziren hori zela eta, postua bikaina baita.

J. ALTUNA



EGURALDIA LAGUN SAN ISIDROTAN

Aldez aurretik beldurra bazen ere, azkenean esan dezakegu eguraldiak lagundu egin zuela aurtengo San Isidrotako ospakizunetan. Aste osoan zehar txondorra kea dariola izan zen Ikili aldean. Ostegunean hasi ziren bertatik ikatza ateratzen. Txondarra, trontza eta egurra garraiatzeko kablearekin zerikusia zuten tresna eta argazkien erakusketa izan zen zalan-

tzarik gabe, gertakaririk arrakastatsuen egun horietan. Gustu handiz erata, ikusle izan ziren hainbat eta hainbaten iritziz, bikaina izan da egindako lana eta oro har, erakusketa bera.

Ostiralean, ume jolasak izan ziren arratsaldean. 8:00etan meza elizan, eta jarraian San Isidrotako ohiko afaria. Gauean Tasio pelikularen emanaldia egin zen. Aurretik, Frontenis txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabaki zituen partidua jokatu zen.

Larunbatean, 8:00etan abiatuta Alkizako 4. mendi ibilaldia egin zen. Bidea batzuen iritzi luze samarra izan arren, oso-oso polita zen, eta askorentzat ezezagunak ziren leku ederretatik pasa zen. Arratsaldean, Aiztondoko kirol topaketa egin zen Alkizako plazan. Bertara Alkizako hurrez gain, Aduna, Larraul eta Zizurkilgoak etorri ziren.

Kirol topaketa amaitu ostean, Frontenis txapelketako hiru partida jokatu ziren. Lehenengoan emakumeen mailako hirugarren postua erabaki zen, eta jarraian nesken arteko finala jokatu zen. Garaileak Uxue Etxebeste eta Nagore Arizeta izan ziren. Jarraian mutilen artekoa jokatu zen, eta txapelkunak Xabier Gabirondo eta Mikel Lopez gertatu ziren.

Azken partida bukatu baino lehen, hasia zegoen Kultur etxean egurra garraiatzeko kableari buruzko mahai-ingurua. Benetan interesgarria izan zen eta oso gustura aritu ziren bertaratu-takoak, bai mahaian zeudenak, baita publiko gisa zeudenak ere.

Igandean berriz, Alkizako haurren dantza-emanaldi dotorearekin hasi zen jaia. Ondoren Trontzaren eguna ospatu zen, Gipuzkoako Trontza eta txinga eroate txapelketa jokatzeko baitzen. Ikusmira handia zegoen herriko Aitor Roteta baitzen trontzalarietako bat. Oso ondo aritu zen Andoni Rezabal bikotearekin batera, eta bigarren postu bikain bat lortu zuten. Irabazleak Legorretako Esnaola anaiak izan ziren. Jarraian, Ikili aldean bazkaria egin zen.



IMANOL



AIZTONDOKO JUBILATUEN EGUNA ALKIZAN

Maiatzaren 24an, igandea, Aiztondoko Jubilatuen eguna ospatu zen. Iaz egin zen ospakizun hau lehen aldiz eta Zizurkilen izan zen. Aurten, berriz, Alkizan egitea erabaki zuten. Goizeko 10:00etan Meza izan zuten, eta jarraian hamaiketakoa. Hamabiak aldera Toka txapelketa hasi zen, eta azpimarratzekoa izan zen partaidetza, ia guztiek hartu baitzuten parte. Sari banaketak egin ondoren, ordu biak aldera, bazkaria izan zuten Ostatu jatetxean. Bazkalostean Martin Goenaga soinujolearen laguntzarekin alaitu zuten giroa.



IKERNE ZABALA ZURIARRAIN JAIO ZEN

Maiatzaren 31n, igandea, goizeko seiak eta erdiak aldera jaio zen Ikerne Zabala Zuriarrain. Ikerne, Iker Zabala eta Nerea Zuriarrainen lehen alaba da.

AMAIA ETA JON EZKONDU ZIREN

Maiatzaren 30ean, larunbata, Alkizako San Martin de Tours Parrokia-elizan, Jon Roteta (herriko alkatea), eta Amaia Sarasola ezkondu ziren. Bertan, familiarteko eta beste hainbat lagunez gain, herritar asko zegoen, dotore baino dotoreago jantzita. Giro ederra

izan zuten egun osoan zehar, horretarako eguraldiak ederki lagundu baitzuen. Dakigunez, gaueko ordu txikitan bukatu zuten ospakizuna joan zirenetako batzuk behintzat (alkizarrak, bereziki).

HILETA ALKIZAN

Ekainaren 3an, asteazkena, joan zen gure artetik Karmen Zinkunegi Irigoien. Karmen Koldobika Jauregiren ama zen eta 82 urte zituen.

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

Ekainaren 7an, egin ziren Europako hauteskundeak, Europa osoan bezala, Alkizan ere. Emaiza honako hauek izan ziren: Zentsua: 279; Bozka eman zutenak: 91; EAJ-PNV: 35; ARALAR - EA: 18; PSOE: 2; INICIATIVA INTERNACIONALISTA: 30; PFyV: 1; Partido Antitaurino: 1; Ezker Batua: 1; Boto nuloak: 2; Boto zuriak: 1



BIKIAK JAIO ZIREN

Ekainaren 11n, osteguna, jaio ziren Gorka eta Eneko Vicente Sanchez. Gorka eta Eneko anaia bikiak dira, eta euren gurasoak Ibon Vicente eta Carolina Sanchez dira. Santiago ermita bidean bizi dira.

JUBILATUEN IRTEERA

Ekainaren 13an, larunbata, Jubilatuen irteera izan zen. San Antonio eguna ospatzeko Urkiolara joan ziren. Han goiza pasa zuten, eta ondoren Azpeitira bildu ziren bazkaltzera. Arratsaldean Zarautzen buelta bat eman zuten.

IKASTURTE BUKAERAKO JAI

Ekainaren 20an, larunbata, Guraso Elkarteak antolatuta ikasturteari bukaera emateko jai bikaina ospatu zuten. Hamaikak aldera hasi zen festa eta jolas batzuk egin zituzten. Arrakasta handia izan zuen bereziki "Altxorraren bila" izenekoak, herriko plano baten laguntzaz puntu zehatz batzuk aurkitu eta walkie talkien bidez galderei erantzun behar baitzizkaien. Ondoren jausgailuarekin jolasean aritu ziren,

eta ustekabeen Urruzola baserrian puztutako baloi erraldoiak atera zituzten. Gustura baino gusturago jolasean aritu ondoren paella bazkaldu zuten. Argazkian ikus daitekeen moduan Nekane Roteta izan zen paella egitearen arduradun nagusia, eta dastatzeko aukera izan zutenek diotenez, primeran zegoen. Arratsaldean "Patata tropikala" izeneko antzerki taldearen emanaldia izan zen. Gozatu ederra hartu zuten bertaratutakoek, eta horrekin eman zioten amaiera egunari.



LOREA

BATAIOAK ELIZAN

Ekainaren 21ean, igandea, meza nagusiarekin batera, bataioak izan ziren Alkizan. Inoiz ikusi gabekoa ikusi ahal izan zen, hau da, bost ume batera bataiatzea. Horietatik lau alkizarrak ziren, eta bat Asteasu-koa. Alkizarrak honako hauek ziren: Enara Iruretagoiena, Andrea eta Oier Leite eta Ikerne Zabala.



X. ARTOLA

SAN JOAN SUA

Ohi duen moduan, Guraso Elkarateak antolatu zuen San Joan bezperako jaia. Arratsaldeko 8:00ak aldera hasi zen dena, etxetik ekarritako janariarekin eta

bertan prestatutakoarekin afari-merienda bikaina eskaini baitzitzairen etorritako guztiei. Aurtengo berrikuntza nagusia sua egiteko aukeratutako lekua izan zen, Udalak baimena eman baitzuen plazan egiteko. Elizaren ondoan egin zuten, eta suaren tamaina aurreko urteetakoekin alderatuz, txikiagoa bazen ere, jendearen presentzia handiagoa izan zela esan daiteke. Ez zen salto eta algara faltarik izan, eta eguraldiaren laguntzarekin denek primeran pasa zuten.



X. ARTOLA

ZIRKOA ALKIZAN

San Joan egunak ustekabe galanta ekarri zigun herri-
ra, inork espero ez bazuen ere, Zirko Mundiala agertu baitzen. Ez zen mundiala zuen tamainarengatik, ez eta ere artisten kalitatearengatik, baina bai Alkizara etorri eta sortu zuten giroarengatik. Ez zuen inork herrian horrelakorik gogoratzen, eta bikaina izan zen herriko jendearen erantzuna, eman zituzten bi emanaldietan ez baitzen jende faltarik izan. Animaliak, akrobaziak, artista inprobisatuak, ia denetik ikusteko aukera izan genuen, eta baita barre algara eder asko-
ak egiteko ere. ■



KOLDOBIKA

Alkizako ahozko toponimiaren laburpena

lazko aldizkarian, toponimiazko nire jardunen gaiaren jarraipena agindu nuen. Hara Alkiza herriaren historia eta definizioa emateko beste bide bat, leku-izenetan oinarritu eta xurgatua. Etapa baten amaiera da, gure herriko ahozko toponimiaren bilketa saioa burutu da, alegia. Luis Mari Muxikak hasitako lana ikusi, aztertu eta osatzeko dago, hau da, Alkizako baserri guztietako eskriturak aztertu eta haietako toponimia hustuketa lana. Lan neketsu eta luzea. Lehen edo gero-

xeago norbaitek egin beharrekoa. Aurtengo artikulu honek, ordea, aurreko bost urteetako borobiltzen du. Bost urtetan ahozko toponimia batu eta emaitzak hiru multzotan labur bildu ditut: lehenik, toponimia nagusia eremu zabalean, bigarrenik, leku-izen horiekin erlazioan edo menpean leudekeenak eta hirugarren multzoan animalia, zuhaitz eta landareekin lotuak, denak bertako ahozko erabilpenean errotoak. Gainera, multzo berezi-berezi batekin amaitu dut sailkapena.

Toponimia nagusia.

Alkiza herri izena eta Tourseko San Martin kolazioa edo parrokia dira nagusietan nagusienak. Ondoren baserri, etxe, mendi, haitz, erreka eta iturri izenak hautatu dira. Kasu anitzetan idatzi eta ahozko erabilera ezberdinetan jaso dira.

Agerre, Agiña, Aldaia (Ttonttor), Aldapa, Alkiza-lete, Altzorbe, Antzieta, Apaiztegi (Apaiztei), Arana, Aranguren (Ângun), Arantzabene (Ântzabene), Areta, Aritzetegi (Aitzetei), Aritzeterdi, Arpide, Arpide-garaikoa (Arpidegai), Arritzaga (Arritza), Azaldegi (Azaldei), Azaldegi-etxeberri, Basarte, Basatxabal, Bengoetxe, Bentzala, Bentzala-txiki, Berandoain (Beandoain), Egurrola (Eula), Eguzkitza, Eizmendi, Elizegi (Elizei), Errekalde, Erretoretxe, Etxabe, Etxabe-goien, Etxa-

be-guren (Etxaun), Etxabe-txiki, Etxaun-berri, Etxesagasti, Garai-koetxe (Gaikotxe), Garmendi, Garro, Goenaga (Goina), Gorostidi, Igaran (Ihan), Igaranzabal (Ihantzabal), Ikilisagasti (Ikili), Intxaurrendiaga (Intxaurrendi), Iribeitia, Karabela, Katalandegi, Kukutegi (Kukutei), Lamiosinaga (Lamiosina), Lete, Leteberri, Liazasoro (Litxaso), Lizarzelai, Lortxinaga (Lortxina), Madrigal, Mariantonena (Maintone), Mariategi (Maitei), Martitegi (Martitei), Mendia, Mendikoetxe, Mendiola, Olaa, Otsamendi, Perurena, Sakamierra, Saletxe, Santio, Sarobe, Urrizpe, Urrutikoetxea, Urruzola-azpi, Urruzola-garaikoa (Urruzola), Zumitza, Zumitza-berri eta Zumitzeta dira herriko baserri eta etxe izan zaharrak, ez denak. Badira desagertuak ere. Eraikuntza berrien izenak ez daude zerrendan jasota.

Toponimia nagusi hau sakabanatua eta aspaldikoa da.

Bost bailaratan, Arana, Sakamierra, Azaldegi, Aldapa eta Ernio mendi izenekoetan sakabanaturik dago. Aspaldikoa, 1562ko udal dekretu batean, ia hiru laurdenak dokumentaturik zeuden. Toponimia zaharra, aldakorra ordea, lehen Echebeguren gaur Etxaun, lehen Guilisasti gaur Ikili eta abar. Beste batzuk, esaterako, Otalarre, Yturalde desagertu ziren, gerora berriak sortu ziren: Etxaun-berri (Errezola), Urruzola-berri (Eguzkitza), Urrizpe, Goina, Gorostidi (Pedrojuane), Aldaia (Ttonttor), Arantzabene, Leteberri, Basarte, Lortxina, Saletxe. Belaunaldiz belaunaldi erabili eta ondorengoei utzitako ondare lexikala dukegu. Euskal abizen edo deitura eta toponimiaren oinarri sendoak daude Alkizan.

Batzuk beste zenbait herrietakoen antzekoak, asko Erdi Arotik datozenak, bakar batzuk ia gure herrian soilik aurki daitezkeenak aspalditik. Aranguren, Garro, Saletxe, Bengoetxea, Garaikoe-txea, Olaa, Garmendia nahiko hedatuak diren bezala, Berando-ain, Madrigal, Igaran, Kukutegi, Urruzola, Sakamierra eta beste batzuk ez dira aurkitzen edonon. Oraindik berriagoak dira azken hamarkadetan sortu direnak, ikusi, besteak beste, Alkizaren herriburua eta inguruak: Toponimia V, 2008.

Halaber, toponimia nagusizat har daitezke erreka, iturri nagusi, mendi eta haitzen leku-izen hauek ere: Agotegaña, Aitxorrotx, Allutx, Amixuri, Angara, Arana, Aranguren, Arraia, Artabi, Aska, Askantxo, Atxutain, Belanburu, Belu, Bidania, Buztinerreka, Enaipuru, Ernio-txiki, Errekaleor, Ezkurreta, Gaikogaña, Gainerreka, Illunbe, Ipintza, Iturburueta (Itturbuta), Iturriberri, Kalbariozar, Kurpitu, Mandabe, Murgil, Murkaitz, Olatondo, Oliturri, Otalats, Putre-haitza, Sandonarri, Santakutz, Suruzpuru, Susterreka, Troska, Txapiola, Txorrondo, Txurro, Unzulo, Zopite eta Zuarreka. Beraz, erreka batzuk, beste mendi batzuk eta haitz batzuk bere-berea dute izena.

Toponimia nagusiarekin erlazionatuak eta horien menpekoak.

Urmaelean harriak uhinak sortzen dituen antzo, anitz izen leku eratorri eta nagusiekin lotuak herriak sortu eta erabiltzen ditu ahoz aho. Etxe, borda, iturri, soro, karobi, harrobi, barruti, sail, putzu, egutera, ospela, zulo, bazter, buru, gain, azpi, koska, inguru, ondo, leize, txara, botan, presa, alde, bide, harkaitz edo

haitz, leku, mendi leku izenak baserri bakoitzak erabili ohi ditu bereak baliran, beraz sarri oso errepikatuak. Eliza eta ermitekin lotuak ere badira. Adibide soil batzuk besterik ez dira emango jarraian: Etxaburu, Etxazpia, Etxaurrea, Etxegoiena, Bordaldea, Aizluzegaineko borda, Allusko borda, Leteko borda, Xiarreko borda, Berraingo borda, Loidiko borda, Larrunbide-etxeberriko borda, Abelasberriko borda, Atzeko soroa, Etxeaurreko soroa, Goikosoroa, Beheko soroa, Soraluze, Sorolepo, Soroberri, Luberri, Soroaundi, Abesoro, Ziarsoro, Nekasoro, Karobialde, Harrobigaina, Akerbarruti, Eliza sailak, Kable sailak, Eanputzu, Ospela eta Eutera, Sorginzulo, Untzulo, Urdanasi-bazterra, Santakutzgaina, Belaburu, Urruzolazpi, Kosketa, Txorrondo, Leizealdea, Bekotxara, Botanagaina, Presaldea, Kanaldea, Aldanoaldea, Lorbide, Haitzorrotx, Otsazulota.

Animalia, zuhaitz eta landare izenak.

Oilo, zozo, abere, bele, azkonarra, putre, ardi, aker, otamotz, untxi, otso eta kuku izenez toponimia aberatsa erabiltzen da Alkizan. Era berean, sagar, gaztainondo, zume, pago, gorosti, hagina, baso, zumitz, lertxun, elorri, urki, ote, ezkurra, larrebelar, txara, haritza, hurritza, mintegi, lizar, intxaur eta belar florarekiko toponimia ere ugaria dugu. Ale batzuk hiru sailkapenetan banatu ditut:

a. Animalia eta hegazti toponimia: Abelasberri, Aberatsalde, Akerbarruti, Arditegia, Azkonartokieta, Larrebelarreta, Oilategia, Otsazulota, Tranpa-buru, Urdanasi eta Zozotegi.

b. Zuhaitz eta landare toponimia: Aginalde, Barruti, Barrutiluze, Basoandia, Bergeta, Elordegi, Gaztainaditxiki, Goiko txara, Landare, Lausagasti, Lizardi, Otari, Otarizarra, Otelats, Pagaritxiki, Pâzelai, Sastiaundi, Sastizar, Sastizelai, Txara-txiki, Urkia, Urkiti eta Zumeta.

c. Kulturazko toponimia: Alkatejauregieta, Andretei, Basajaundegi, Bolaleku, Elurzulo, Lakaitxiki, Lakaizar, Lakape, Lamiosinaga, Negusaila, Pelotaleku eta Zarrensaila.


Oro har toponimia geografía, historia eta herri kulturari ondo moldatua.

Alkiza beti izan da nekazal eremua, izenak ere horixe adierazten omen du, haitz, harkaitz eta harri lekua. Erreka, iturri eta errota ez ezik mendi, baso eta zuhaitzak ugari dira. Frogatzako baserrien izen batzuk dakartzat: Albiztegi, Aritzegi, Aritzardi, Basarte, Basatxabal, Eizmendi, Etxesagasti, Garmendia, Gorostidi, Igaran, Igaranzabal, Ikilisagasti, Intxaurreandiaga, Lizarzelai, Lortxinaga, Mendikoetxe, Mendiola, Olaa, Otsamendi, Urrizpe, Urruzola, Urruzolazpi, Zumitza, Zumitza-berri eta Zumitzeta.

Toponimia berezi-berezia:

Agiregi, Anketa, Antsu edo Antxu, Añoa, Arburu, Arraia, Arraspû, Azti, Berrain, Elitxupi, Elketa, Engeta, Gibebe, Itzuregi, Lete, Lupats, Mazurzulo, Muñabe, Murgil, Nekatiola, Okelar, Olatza, Orita, Pâbe, Parrai, Partze, Portoki, Sakaio, Suspaitza, Txandio, Txapiola, Txurro, Uban, Umana, Xiarre, Xitoki eta Zutazu. Zer adierazten ote dute? ■

Alkizako ahozko toponimiaren laburpena





Alkizako etxeak eta biztanleak

Orain arte baserrien izen eta historia laburbilduta azaldu dizuegu. Ondoren, beste etxe eta biztanleen izenak jakinarazi nahi dizkizuegu, pixkanaka elkar hobeto ezagutzen joateko. Aurten, sei dira aukeratu ditugunak, hurrengo urteetan guztiak azaltzea da gure asmoa. Hauek dira 2009an agertzen direnak:

TXIMISTA KAPITAINA

1994-1996an eraikia. Azaldegi auzoan dago, eta biztanleak hauek dira: Koldobika Jauregui Zinkunegi, Elena Cajaraville Ordoñana eta Gerezi Jaurregui Cajaraville.



GOIZTIRI

2001ean eraikia. Hau ere Azaldegi auzoan dago, 17 zenbakiarekin. Biztanleak hauek dira: Gregorio Goenaga Arrillaga, Karmele Morea Aranzasti, Nahia Goenaga Morea eta Oinatz Goenaga Morea.



GOROSTI-URREA

Hau 1999an eraikia da. Alkiza plaza 25 da helbidea. Biztanleak hauek dira: Javier Gorostidi Usabiaga, Marisol Urretabizkaia Arrate, Mattin Gorostidi Urretabizkaia eta Jone Gorostidi Urretabizkaia.



ZUTABE

2002an eraikia. Alkiza plaza 26 da honen helbidea. Biztanleak, berriz, hauek dira: Juan Eugenio Aranzabe Urruzola, Isabel Pita Pena eta Shrabani Aranzabe Pita.



LURGAIN

1971n eraikia. Alkiza plaza 7 da helbidea. Lehendabiziko jabea Auzmendi sendia izan zen, ondoren, Enrike Lobo eta Arantxa Zubizarretaren eskuetara pasatu zen, Gaur egun, Pello Aristegi Urrestarazu da bertako jabea, eta Mertxe Lopez Lopez eta Eneko Aranzabe Lopez dira erreteruak.



ELTZAURPE

1965-1967an eraikia. Bere lehenengo izena Bi Lagunak izan zen, ondoren Irrinzi, eta orain Eltzaurpe. Biztanleak hauek dira: Jon Umeriz Urrezola, Gabriela Chotro, Ane Umeriz Chotro eta Marina



“Dones del lugar” liburua dela-eta Keparekin kontu-kontari

Pertsona onaren itxura du, ibilaldi pausatua, begirada sakona, ahots gozoa. Behin, herriko mutil koxkor batek Olentzeroren anaia ote zen galdetu omen zuen. 1982an etorri zen lehen aldiz Alkizara. Gerorako, Peru baserrian bizi izan zen ia urtebetez. Hemengo jatorrizko euskara ikastera etorri zen, baina ordurako antropologia lanetan hasia zen. Antropologia arloan, oso ezaguna da Euskal Herrian, baita kanpoan ere, nekazal munduaren inguruan idatzi eta hitz egindakoengatik. Asko dira, urte askotan zehar, idatziak dituen artikuluak eta liburuak batetik, eta zuzendu dituen kongresu eta hitzaldiak bestetik.

Lehenik eta behin Kepa, zergatik liburua?

Bizitzan bezala ez dago arrazoi bakarra, bat baino gehiago baizik. Esan behar dut nire ogibideak liburuak idatz ditzadan eskatzen duela. Bestalde, herrian bizi naiz, eta ikusten nuen azken 6 – 7 urte horietan aldaketa handiak izaten ari zirela hemen, asko hitz egiten zela, plazan, lagunen artean, han eta hemen, hau eta bestea, eta nik ez nekien nola interpretatu gertatzen ari zena. Hasi nintzen paperean datuak jartzen, baina ez modu organizatuan, eta horretan ari nintzela, lagun ingeles baten bisita izan nuen. Hark esan zidan liburu bat prestatzen ari zela azken urte horietan, European nekazal munduan ematen ari ziren aldaketei buruz, hango eta hemengo jendearen artikuluekin, eta esan zidan parte hartu nahi ote nuen horretan, eta esan nion saiatuko nintzela. Azkenean urte horietan gertatzen ari ziren aldaketez (1998, 1999, 2000...) ohartuta, konturatu nintzen lehen ere (1982, 1983, 1984 urteetan) aldaketak izan zirela. Beti

daude aldaketak. Pentsatu nuen lehen garaietako oroitzapenak eta oraingo datuak bilduz, interesantea litzatekeela, datuak alderatzea.

Eta zer egin zenuen?

Lehendabizi artikulua bat prestatu nuen ingelesez liburu baterako. Gero pentsatu nuen datu gehiagorekin liburu bat gaztelaniaz idaztea, ingelesetik errazagoa baita gaztelaniara pasatzea euskarara baino. Diputazioan diru-laguntza eskatu

Gustukoa izan du beti, eta du, bertakoekin aritzea, bertakoen ahotik zuzen-zuzenean bizitzaz hitz egiten entzutea, eta bizitzaz hitz egitea. Kanpotik etorritako gutxiak lortu du Kepak lortu duen moduan alkizarrengana hurbiltzea. Etxeko sukaldean, tabernan, herriko festetan, kalean, edozein lekutan, tertulian, luze jarduna da. Eta solasaldi horien ondorioa da, neurri batean behintzat, duela bi urte argitaratu zuen “Dones del lugar” liburua. Oilategitik aldizkari-rako hitz egin nahi izan dugu berarekin, ohi duen moduan, patxadaz, lasai. Etxean hartu gaituzte, Amaiak, Oihanak eta berak, goxo, kafea eta bertan bustitzeko bizkotxoak tartean zirela. Hau da Kepak beste lauroi kontatu digunaren laburpentxoak:

nuen liburuaren parte bat egiteko, eta eman egin zidaten. Berehala etorri zen historia hau guztia. Jabetzen nintzen Alkizara beste edozein bezalaxe etorri nintzela bizitzera, eta lehen aldiz etorri nintzenean, berriz, ikertzaile gisa etorri nintzela. Bi egoerak desberdinak dira. Lehen aldi hartan modu batez harreman du nintzen bertakoekin, eta orain beste modu batez. Nolabait, bada neurri batean autobiografia ere, batez ere lehenbiziko partean.



Oihana, Amaia eta Kepa.



Liburuaren azala.

Laburbilduz esango nuke liburua idatzi nuela, alde batetik kanpotik etorritako galdera bati erantzun nahian, eta bestetik barnetik sortutako kezka bat azalarazteko asmotan. Baita ere pentsatu nuen nik idatzitakoak, nire gogoetak besteek jakin behar zituztela.

Norentzat da liburua?

Aitortzen dut liburuari zukua ateratzeko aurretik formakuntza bat behar dela, nik idazten ditudanean antropologoak baititut buruan. Hala ere, estiloa ere saiatu naiz oso dibulgatiboa izan zedin hitzak ondo aukeratzeko, irakurterreza izateko.

Sakondu dezagun pixka bat Kepa. Nola ikusten duzu gaur egun herria?

Nik uste dut hemen gauza nahasi bat dagoela. Badago nortasun irudi publiko bat kanpokoei begira. Nire ustez, barne nortasun homogeneorik ez dago, alegia, barnetik datorren nortasunik ez diot herriari ikusten. Herriak halako eta holako ekintzak, edo aktibitate kolektiboak aurrera eramaten dituenen, badi-rudi kanpotarrek epaitu ditzaten egiten dela, hala ikusten dut nik behinik behin. Esandakoaren adibiderik argiena herriko festak dira.

Liburura bueltatuz, hau ez da idazten duzun lehen liburua, ezta?

Ez. Nire kezka antropologia-irakasle bezala nekazal giroko mundua eta haren bilakaera izan da. Horrexegatik etorri nintzen. Hori dela eta, kongresuak antolatu ditut, askototan hartu dut parte. Ni saiatu naiz globalizazioaren aurrean (homogeneizazioa bultzatu nahi denean), lokalizazioa bultzatzen. Globalizazio horren eragina nola gertatzen den herrietan aztertu dut, eta zein den tokian tokiko erantzuna. Orexan adibidez oso erantzun interesgarria eman da gaztaren inguruan, beste batzuek kooperatiba bat antolatu dute. Hemen, berriz, ez da horrelako erantzunik eman.

Zer da bada, zure ustez, hemen egin dena?

Hemen egin dena da kanpotik datorriguna eskaini. Zer datorkigu kanpotik? : aisialdia eta kontsumoa. Ba hemen, kontsumo hori eskaini da. Adibidez, plaza oso modu urbanoan jarrita dago. Jendea aisialdi ideia horretan sartu da: kafea hartu, afaldu... Ez dut esan nahi gaizki dagoenik, aisialdia primeran baitago, baina baserriko ideologia nagusia historikoki, lana izan da. Beste hori gauza berria da. Kanpoko batzuk ideia horrekin etorri dira, eta bertakoek ere aisialdi hitza bereganatu egin dute. Baserrira ez dute hartzen neko-soa delako, lana delako. Orduan, zein da aisialdia edo afizio nagusia baserriko ideologia horretan?: ehiztaria izatea. Hor kontsumo bat dago, baserriko datorrenak hor bere mundua aurkitu du. Kaletik etorri garenok gure erreferentzia aurkitzen dugu baserriak ikusita, belazeak ikusita, ganaduak ikusita... eta horiei begira festak antolatzen ditugu.

Liburuan, besteak beste, Alkizan 1983tik 2005era emandako aldaketaz mintzo zara. Zeintzuk dira aldaketa horiek, adibidez baserriari dagokionean?

Errealitate bakoitzak bere kontraesanak ditu, baina hemen baserrira

dela errealitate historikoa eta, kontraesan handia dago. Baserrira alde batetik garrantzizkoa da, bai, identitatea ematen du, hortik gatoz. Baina beste alde batetik baserrira ezkutatu egin nahi dugu. Orain etxeak berriztatzen ari dira, baina izaera hori ezkutatu. Koloreari erreparatu, tradizionalki zuriak badira, orain inork ez du eredu hori jarraitzen, beste eredu bat jarraitzen da, erresidentzialagoa. Ornamentuak eta estiloa erresidentzialagoak dira.

Eta kanpotik etorritakoak eta bertako arteko harremanei buruz 1983tik hona, zer duzu esateko? Aldatu al dira?

Nik kanpokoa eta barrukoa bizimodu bezala ikusten dut, elkarrekin lotuta. 1983an, kanpotarra pertsona arraroa zen, salbuespena zen. Baina orduan, arraroa zen hemen, eta arraroa zen hona etortzeko uzten zuen herrian ere. Familian ere gaizki ikusita zegoen, "jota al hago?" eta horrelakoak entzun behar izaten zituen. Orduko giroa horrelakoa zen. Gaur egunean, ordea, mendi aldera bizitzera etortzea onuragarritzat jotzen da, onartu egiten da, positiboa da, bizitzamaila altua adierazten du. Bestalde, kontuan izan behar da batzuk baserria edo etxea egiten dutela, eta beste batzuk pisutan bizi direla. Pisuena fenomeno berria da.

Asko ugaritu dira azkenaldian

Jakina, baina ez da inoiz Alkizako bizimodu nagusia izan. Lehen pisuetara joaten zena beste herri batera joaten zen, baserrira utzita. Orain, berriz, pisuetan bizi dira belaunaldi gazteak, eta baserrietan geratu direnak zaharrak dira, hau da, pisuetan alaitasuna dago, umeak-eta daudelako, eta baserrietan tristura dago. Sinbolikoki ikusten da baserrira beheruntz doala, estetikoki ere bai, eta kanpotik etorritakoa gora doala.

Azken batean, pisuetan bizi direnak, oro har, bertakoak dira, eta bestalde kanpotik etorritakoak gaur egun, ez datoz garai batean bezala, artista gisa, baizik eta jendearekin parte hartzera, nahiz eta parte hartze hori gehienbat tabernetan tragoak hartzera mugatzen den. Kontsumoan elkartzen bagara, ez da arazorik izango.

Kontsumoa aipatzen duzunez, orain gainera datorkigun edo iadanik gainean dugun krisia dela eta, zer?, zer gertatuko da?

Oso gai interesgarria da hori. Garbi dugu baserriak porrot egin duela. Hemengo biztanleak, plaza inguruan bizi direnak eta zenbait gazte eraikuntzan aritu izan dira, eta denok dakigu horrek beherunzko joera nabarmena duela. Beheko tailer asko eta askotan "ERE"ak etorri dira (erregulazio espedienteak). Gero eta etxe gehiago dago hemen salgai, saldu ezinik. Krisi honek aurrera eginez gero, zer gertatuko da? Jendea langabezian jartzen bada, eta kanpotik etorritakoek ezin badute etxea ordaindu, eta salgai jartzen badute, bankuek hartuko dituzte. Burbuja inmobiliarioak oraingo herriko estetika ekarri du, baina hau aldatzen bada egonezina nagusituko da. Kezka handia da. Bertakoek, etxea, familia, baserria dute, badute nolabaiteko babes harreman sarea, baina kanpotik etorritakoek herrian ez. Gero honekin lotura duen beste kontu bat ere aipatu nahi dut: burbuja kulturalarena.

Orain dela gutxi Berria egunkarian zuri eta beste antropologo ezagun bati egindako elkarrizketan horretaz hitz egiten zenuen, burbuja kulturalari buruz, alegia.

Bai egia da. Niretzat garrantzia duen gaia da. Azken urte hauetan badugu etengabe festak antolatze-

ko joera, eta gainera gertakizun kulturala bailiran plazaratzen ditugu. Baserriari dagokion erreferente kultural bat hartuta, edo erakusketa baten aitzakian, festa egiten da. Eta nire ustez festa eta kultura nahastu egiten dira. Jatea eta edatea soilik, ez da berez kultura. Batzuek esaten dute, entzuten da, festa asko antolatzen dela; nik ez dakit proportzioa handia edo txikia den, baina entzuten da. Nik aurreikusten dudana da horrek ere egonezina ekar dezakeela, hau da, batek hau egin duela, besteak bestea, batzuetan batzuek parte hartzen dute, besteek ez, haserreak ere sor daitezke. Demagun, uneren batean erabakitzen dela horri mugak jartzea, mozkorraldia bezala izan daiteke, hots, biharamunean buruko mina izatea. Beraz, laburtuz nire kezka batetik da burbuja inmobiliarioak buruko mina ekarriko ote duen, eta bestetik burbuja kulturalak ere gauza bera ekarriko ote duen, eta bi buruko min batera ...

Eta bukatzen hasteko Kepa, jar gaitezen pixka batean geroari begira. Zer behar du Alkizak zure ustez zoriontsuago izateko?

Adostu egin behar da, kontsentsuatu egin behar da zer nolako herria nahi dugun. Lo egiteko herria nahi dugun, Ostatuan afaltzeko nahi dugun, harremanetan jartzeko lekua izatea nahi dugun, erakusteko toki bat nahi dugun, eskaparate horren elementuak guk jarriz, edo hemen bizi nahi dugun bertako errekurtsio naturalak erabiliz. Baina nire ustez ez da hori hauteskunde batzuetan egin behar, nire ustez prozesu baten ondorioa behar du izan horrek, eguneroko, asteroko elkar ekin tzaren emaitza.

Bertako errekurtsio naturalak erabiliz bizitzea esan duzu. Posible al da hori gaur egun?



Herriko jaietan, mozorrotuta.

Modu desberdinak daude. "Bajada de cañones" egiten badugu, enpresa batek kanpotik turistak ekarriz, bertako batzuei lanpostua eskaintzen badie, ari gara bertako errekurtsioak erabiltzen. Dena den, hori lehen aipatutako eskaparateari dagokion aktibitatea izango litzateke. Hori modu bat da, baina badaude beste modu batzuk, lotura dute-nak lehen sektorearekin. Une honetan agian, ez da zuzenena lehen sektorea aipatzea, horrek erantzuna eta perspektiba baldintzatzen baititu. Baina nik uste dut baserriatik, produktu naturaletik bizitzea posible dela. Gainera batzuek egiten dute hori dagoeneko, batzuk bizi dira gaur egun baserriatik.

Lehen Orea aipatu duzu

Baina zein dira alternatibak?. Ekoizpen ekologikoak, "bio" tipokoak, gauza txikiak. Baina horretarako ere elkartu egin behar da, ezin baitio batek bakarrik horrelako zerbaiti aurre egin. Konpartitu egin behar da, eta horretarako gogo handirik ez ote dagoen sumoa dut. Kontua da hortik bizitzeko ezin dela bizi garen bezala bizi, hau da, moda-modako autoak izanda, noiznahi afaltzera joanda, hori ez da posible. Egia dena da adibideak badirela. ■

Urruzolako Leinargiarekin Solasean

“Urruzola”, bere azpi-bailarako hizkera bereziaz, horrela erantzun dit Jose Ramonen Ane bilobak, non geunden galdetu diodanean. Eta bai, Urruzola baserrian edo eremuan gaude, berak dolareko egur zaharretaz eginiko salako mahai sendoaren inguruan, Jose Ramon Aranbururekin solasean.

Alkizako “Aldapa” bailararen atarian. Goiz lanbrotsu eta euritsua egokitu zaigu Pello eta bioi. Udaberria ezkutatu samar, baina azaltzeko gogoz. Patxadaz sartu gara, parajeaz gozatuz eta bidean sumatu edota aurkitzen ditugun baserri eta parajeen istorioak komentatuz. Errota, Garro, Ikilisagasti, Aranguren, Arangurenberri eta azkenean Urruzolazpi txiki eta maldaren erdialdean, ekialderantz kokaturik, agertzen zaigu Urruzola etxea: ederra, solemne eta halaber eroso, azkeneko 40 urteetan Aranburutar ia guztion lan eskergari esker. Inguru benetan berezia, magia beteta esaten diot nire buruari. Arrazoia zeukan Fernando Etxebestek.

Salan eserita gaude, bada. Jose Ramonen ondoan haren emaztea den Karmen Arruti, Zizurkilgo Iartzakoa, alaba Mirari eta honen alabatxoak Ane eta Irati. Tarteka ere azalduko dira Aritz eta bere arreba.

Beno, Jose Ramon, heldu beharko diogu gaiari. Izan ere eta hasteko, zer hartzen duzu kontutan arbolak botatzeko garaian?

Arbola bota, neguan bota behar dela aipatu egiten da, baina inportantea dek ia abuztua azkenetik aurrera izerdia goitik behera hasten dek eta orduan



dek epokarik hoberena. Neguan geldirik egoten dek, baino ia neguaren erdirako berriro gora joaten dek. Orduan historik ez zegok ta bale; baina goitik behera hasteko nahian dagoenean, orduan botatzea askozez hobe dek. Azaroan hoberena. Aben-dua ezkerre ia mugitu egiten dek, hasi egiten dek, oso negu txarra ez bada behintzat. Orain, eztakit hau dakien baten batek. Edozein garaitan bota, gero sekaderoan sartu, tratamendua eman eta listo. Horrelako tratua emanda, ze nolako emaitza eman- go duen egurrak, baina ziur egon ez lehengo garaietan bezala.

Ilargia ere kontutan hartuko duzu, ezta?

Bai, bai, oso inportantea dek. Hosto zabala, hosto handia, adibidez: zumarra, gaztaina, lizarra,.. horiek ilbeherakoak dituk. Hosto borobilekoak berriz ilberrikoak. Ilbeheran botatuko pagoak su onik ez du egiten itxuraz, ez dik berotzen. Enkanbio, ilberri bota ta, bo!. Sutarako eta danerako. Ilberri eta ilbeherako hori oso inportantea dek, baino hola, garbi eh! Ikaragarri esan nahi dik. Hik tarima bat edo ate batzuk edo, ilberri edo ilberriko mugan bota eta tik-tak!, zartaka hasten dek. Bizia dik, mugitu egiten dek. Pagoa, hurritza,.. hosto borobil guztikoak berriz, ilberrikoak dituk. Denak. Altza ere bai. Altza dek ilberrikoa eta maiatzeko ilberrian botatzen baldin bada, hautsi ez dek egiten; ximela dek.

Eta akazia? Akazia dek egur bat bota ta krak-krik, segituan irekitzen dek eta. Niri behin Xanti zanak erakutsi zidan, Katalandegiko Xantik erakutsi zidan: "Hi, akazia bota behar badek, azaroko ilberri eta ezta mugitu egingo" "Bai?" Eta "bai". Eta nik eskailera bat egiteko, nik hor zerra neukan eta hala gertatu huan. Hik akaziekin hesolak egiten hasten bahaiz eta hieeekkkkkk, irekitzen hasten dek. Baina ilbeheran botaz ezkerre ezta ezer mugitzen. Regla bezala egoten dek. Azaroko ilbeherako dek akazia. Hori oso sagradua dek. Eta oso jende gutxik zekien, eh!

Makilak egiteko hurritza azaroko ilberrikoa, beraz, ezta?

Bai, bai. Ilberria, ilberria. Hik beste garaian edo ilbeheran botatzen badek, segituan pipiek jotzen diate baina ilberrian, ilgoran, bota eta batez. Gaztaina berriz ilbeheran. Eta Pinua,.. eah!,... Pinua inork ez zekik. Batzuk ilberrikoa dela, beste batzuk berriz ilbeherakoa. Alertzea, berriz, alertze pinua ilbehe-



ran bota izan diat nik. Baino beste batzuk "hil, ilberrikoa dek!". Eztakit nik ba!.

Arbolak, fruta-arbolak batez ere, kimatzeko garaian kontuan hartuko duzu ere, jakina?

Bai, bai, bai. Nik behintzat bai. Lehenago kimatu egiten nuan neguan ta txarra dek. Neguan geldi zegok. Hori Diputaziokoei erakusten nien. Albaro eta ingenieroei, Askasibar ingenieroari nik erakutsi nien, Ataunen. Arbolak kimatu behar zirela, pinuak eta Udaberrian kimatzeko garai txarra zela. Eta nik: "Ezet. Kimatzeko garaia hau dek." Izerdia hasten denean, segituan itxi egiten dik. Eta neguan egiten badek, izotza, euria,.. sartu eta usteldu. Beraz egurra kimatu izerdia mugitu ta gero; beti. Eta pinuekin, pinu insignisekin berdin, berdin. Neguan egin eta kriston ebakiak, irekita gelditzen dek. Udaberrian egin eta segituan erresina sortu eta itxi. Geroztik Askasibarrek esaten zidan: "Arrazoi duzu, Jose Ramon, arrazoi duzu". Beraz Udaberriko ilbeheran; beti. Hostoak ateratzen hasita badago ere. Loreak aterata izan ezkerre ez, baina hosto txiekien bai.

Fruta-arbolak kimatzen hasteko, ze altueratan moztu behar?

Zenbat eta bajuago, orduan eta hobe. Bainon hazienda dabilen tokian ta, pixka bat altuxeago. Ahal den beherana. Eta gero, behetik kanpo aldera, eguzkia sartu dedila. Barrukoa hustu, kendu. Eta adarrak mozteko garaian ere, kanporuntz. Gorakoa



kendu eta behean egiten dik lana. Eta platanoa, norteko haritza, intxaurra ta gaztainak, horiek denak. Aldatu eta ederrak egingo dira. Ba ez. Askoz hobia dek lau bat urte aldatuta egotea eta indarra hartzen dutenean, sustraietan indarra hartzen duenean, holako batean Tak! Moztu eta ederki etorriko dek, zuzen-zuzen, bala bat bezala.

Norteko haritzarekin izan dituk komentarioak, baino ilbeherakoa dek. Izan baitira batzuk: "Ilberrikoak dituk!!!" Ez, ez, ez. Ilbeherakoa; baina garbi, eh! Hosto luzea, hosto handia, hosto zabalak ilbeherakoak dituk; denak. Zumarrak berriz hosto txikiak ditik, ilberrikoa dek. Hosto zabalakoa berriz ilbeherakoa.

Intxaurrondo beltza, intxaurrondo zuria?

Hori etzaio gainetikan antzematen. Gutxi gora behera bai, eh! Eta ez dek arbola bota beharrik. Adarra batekin nahikoa dek. Beltza baldin bada, adarran antzematen zaio. Garai batean bazen bat, Errialde Txiki, etzekiat oraindik bizi den, taladro txiki batekin ibiltzen zena. Nagusia begira ez zegoeanean, sartu eta konprobatu. Orduan erosten zin. Behin intxaur bat haizeak bota zin. Eta nik berari "Intxaurra ederra" Eta berak "Ez, hori txuria zegok". "Txuria?" Eta "Bai; txuri txuria zegok" Berak konprobatuta zeukan eta. Hura elementua!

Zuhaitza bota ondoren zer egin behar da? Etxera ekarri, bertan utzi? Zenbat denboretan?

Hoberena da bota ta ikuitu gabe, bertan utzi. Ezta adar bat ere kendu. Bertan utzi. Urte bete edo bi.

Materiala etxerako baldin badek. Adar ta guzti baldin bada, jeneralean aidean egongo dek. Eta lurra-
ren kontra egonez gero ere. Pagoa tira, baina hari-
tzarekin mejora, gizona pixka bat zehatzen zaiok
eta. Orain berriz ez diogu uzten.

Eta pagoa uretan urte bete edo utziz gero, hobe,
mejora dudarik ez. Pagoa moztu eta urak ez erama-
teagatik kate batekin lotuta, errekan utzi denbora
luzea, hogeit urte ere, atera eta puafff! Oso, oso
ederra egurra! Alkizako elizak zimenduetan pagoak
ditu. Pagoa bustia edo lehorra ondo; baina busti-
lehorra ez, segituan usteltzen dek. Aritza, akazia
eta, uretan berriz usteldu egiten dituk. Gaztaina?
Uummm! Etzekiat.

Akaziarekin ez. Akaziak ez dik balio apalak eta hola
egiteko. Hesolak egiteko bai. Nik tarima hori aka-
ziaz eginikoak daude, hala ere. Lan egiteko egur
oso aldrebesa dek akazia, zaila. Egurra oso ona dek,
gogorra. Moztu eta erosi nuen zepilladora handi
batekin landu, baina pufff! Zenbat kutxila eta ...
buenoooo! Eta egurra ez okertzeko, onena dek
enbor osoa uztea. Lau kantoiak eta gizona kendu
eta osoa erabili. Egurraren azalak tiratu egiten dik.
Erdiko bihotza osoa uzten baldin badiok, hura ez da
mugituko.

Lan egiteko egurrik egokienak?

Haritza eta gaztaina izan dira erabilgarrienak. Lana
erraz egiteko, gaztaina gozoa dek, fina. Eta dibujoa
zoragarria dik gaztainak. Politena gereziak dik.
Kutxak egiteko, gaztaina. Izaten hituan gaztaina
arbol handiak eta kutxa osoa, aurrekoa, osoa egite-
ko. Eskailerak egiteko, haritza. Pasamanoa egiteko
gaztaina; eta haritza ere bai, bai. Etxekoak norteko
haritzakin egindakoak. Nik hemen zenbat lana egin
dudan. Jesussss! Txikitatik arotza lana beti gustatu,
beti. Etxean obra hasteko garaian, makinaria erosi
nin. ... eta hola. Lanak erakusten dik. Lana gustatu
eta aritu. Egurra, harria, burnia, ... Moldatu egiten
haiz. Nik eskolik ez dut izan, baina gaur maisu asko-
ri erakutsiko nieke. "Ez! Hori ezta hola" .

Zuhaitzak aldatzeko garaian?

Aurrez zulatu, neguan aldatu. Ilargiari sekulan ez
diot begiratu. Eguraldiari bai. Ez zezala izotzik egin.
Aldatu eta segituan euria egin, hori dek onena.
Etxean hemen bazeudek nik aldatutako pagoak,
kanakoak. Pinuekin batera aldatutakoak. Pinuak



pagoa babestu egiten dik. Nik behin egin nin prue-
ba bat, Ataunen ari ginela, Askasibarrekin nenbile-
la, egin nuen prueba. Pinua, lizarra eta pagoa. Alda-
tu zulo eginda. Orduan ibiltzen nintzen makina
zeraman batekin ta zanga, goldea bezala egin eta
aldatu. Zangetan orbela eta simaurra. Jesus! Etorri
hituan, aibadios! Askazibarrek "Oye. Nosotros para
qué hemos estudiado!"

Eta horrela jarraitu dugu, mahaiaren inguruan,
argazkiak lekuko, familiaren historia, Jaure lantegi-
ko lan garaiak, eta garai hartan –"Proceso de Bur-
gos" delakoan, 70ko bukaera aldi hain zuzen-
utzita, sasiak hartuta zegoen Urruzola sorlekurako
buelta, garbiketa-lanak, birmoldaketa, obra-lan ika-
ragarriak, Jose Ramonek izandako istripua, ...
komentatzen. Karmen, bitartean, denbora osoan
gure ondoan, begi bizi eta abegikor.

Karmen, zuk lagunduko zenion, ezta?

Zertan ez! Denean. Kanpoan lanean ere bai, eh!
Zenbat masa egin! Dena kendu behar izan genuen.
Zenbat masa egin nuen errebuelta hartan nik!
Bueno! Zenbat lan eta zenbat urtetan! Baina gustu-
ra, oso.

Gero etxerako bueltan, kotxean, Pello eta biok ixilik,
bakoitza bere gogoetei buelta ematen. Lanaldi
gogorrak izan dira, dudarik ez; baina aldi berean
beteak; zoriontasunez bizitzeko aukera ematen
dizutenak. Errepidean sartzerakoan, burua jira eta
laino eta euri, bailarako mendi eta basoen artean
"Tasio" sumatu dudala iruditu zait. ■

Jesus Sorarrain Alkizako indianoa

Hamabost urterekin irten zen lehenengo aldiz etxetik. Donostia izan zuen helmuga. Bertan ezagutu zuen Estatu Batuetara eramango zuen pertsona, hiriburuko taberna batean lanean zegoela. Artzain bezala lan egiteko proposamena egin zion. Jesusek ez zuen bi aldiz pentsatu: ideia gustoko zuen eta soldata ere ona zen, taberna utzi eta Ameriketara joan zen. Azkenean hiru urte iraun zuen lan bidaia izan zen.

Ba al zenuen artzantzan ideiarik dena utzi eta Ameriketara joateko?

Ni artzantzan hasi nintzenez ez nuen ideiarik ere zer zen artzain izatea. 15 urterekin Donostiara joan nintzen lan egitera, Aurrera Tabernan. Etxetik ateratzen nintzen lehenengo aldia zen. Baserrikoa naiz, eta harro nago horretaz eta baserrian lan egiteaz. Hala ere, ez nekien ardi bat zer zen. Baina inoiz ez da berandu ikasteko. Ardia animali zoragarria da, maitemindu egiten zaitu eta piskanaka bakoitza ezagutzen duzu.

Nola okurritu zitzaizun hara joatea?

Tabernara artzain bat joaten zen eta berak esan zidan ameriketan artzainak behar zirela eta soldata hemengo baina hobea zela. Berak konpondu zuen bidaia guztia, hegazkina zein egunetan hartu behar nuen esan zidan, eta hori bai, biletea nik ordaindu behar nuela. 1983ko abenduak 28an ateratzen ziren Bilbotik Madrilera. Gogoan dut 9:45etako hegazkina zela eta garai-

ko 7.100 pezeta ordaindu nituela. Hegazkinean Andres Darrayet artzainarekin nijoan, Elizondokoa, gero elkarrekin lan egingo genuen. Bidaian Carmelo Cedrún Athletic-eko atezaina zijoan ere eta berarekin hitz egiteko aukera izan nuen.

Zein urtetan joan zinen Ameriketara?

Estatu Batuetara 1984ko urtarrilak 1ean iritsi nintzen, 22 urterekin. Ez zait inoiz ahaztuko kobratzeko eguna zelako. Urtean behin kobratzen zuten eta ni eguerdian iritsi nintzen. Momentu horretan hamasei artzain zeuden enkargatua maletarekin noiz etorriko zain. 20 milioi dolarretik gorako balioa zuten txekak ekartzen zituen. Artzain guztiak euskaldunak ziren: Mutriku, Eibar, Berastegi, Bermeo, Pedernales, Busturia, Araniz... Sukaldaria ere euskalduna zen, Don Antonio, gizon oso ona.

Norekin elkartu zinen Ameriketara?

Aireportuan artzain guztien enkargatuak jaso ninduen. Bizkaitarra zen. Jabearen etxera eramanez ninduen, emakume zahar bat, oso diruduna. Bakarrik bizi zen etxe handi hartan. Gogoan dut garai hartan kotxe zoragarri bat zuela, Maberick markakoa, gorria eta oso handia. Iritsitakoan garajetik sartu ginen eta emakumea agurtu genuen. Mahai gainean zuen nere expedientea. Nongoa nintzen galdetu zidan, nere hemengo lanbidea eta ea fisikoki ondo nengoan. Guztiari erantzun nion, txeko batzuk egin zizkidatela eta oso ondo nengoela. Afaria amai-



LUIS MARIA NÚÑEZ URREZOLA

tutakoan enkargatuak bere etxera eramanez ninduen, Wuisy herrian. Gau hartan oso ondo lo egin nuen. Hurrengo egunean arropa, janaria, ardoa eta tabakoa eman zizkidaten, guztia enpresaren kontura.

Zer iruditu zitzaizun lehen egun hartan hango bizimodua?

Gehien harritu zidana izan zen mahaia whisky botillaz bete egoten zela, baita bi kiloko Matutano patata poltsekin ere. Gauza da guztiak barrakoiean zeudenean desagertu egiten zirela, baina hurrengo egunean berriro han agertzen ziren.

Nola egiten zenuten lan?

Bi artzain joaten ginen eta hiru egunez behin aldatzen genuen kanpamentua. Lau aste dira gelditu gabe: goizero 4:30etan jeiki, oraindik ilun zegoela, ardiei norabide egokia emateko prestatuak egoteko. Bildotsak oso azkarrak dira baina batzuetan oso tuntunak ere izan daitezke.

Nor izan zenuen kide lehenengo irteeran?

Lehenengo lankidea Ramon Lauzurika izan zen, Mutrikukoa. Lehenengo irteera 1984ko martxoak 19an egin genuen. Iritsi eta bi hilabete eta erdira zaldi zuri bat eman



Ezker-eskuin: Berastegiko Jose Migel Garaikoetxea, Aulestiko Dolores Salutregi, Coyhaique Punta-Arenako Juan Menchise eta Jesus Sorarrain. Boise-Idaho 1986ko martxoan.

zidaten, Ross deitu nion, guztiek hala deitzen zutelako. Oso handia zen eta behiak zaintzeko baztertu zuten. Nik ez nekien zaldian ibiltzen, lehenago ez nuen inoiz egin.

Nola ikasi zenuen zaldian ibiltzen?

Ramonek esan zidan beldurra banuen hoberena ezer gabe eta aldapan gora ibiltzea zela, zaldia ez zela atzera botako. Haitzarte batera joan nintzen. Gainera igo nintzenez poliki ibiltzen hasi zen, baina piska bat ikutu nuenean trotean hasi zen aldapa bukatu arte. Orduan konturatu nintzen ez nintzela erori eta zaldian ibiltzea gus-tatzen zitzaidala. Ordutik aurrera lasai ibiltzen nintzen, baina aulkia-rekin. Ezinezkoak ziruditen aldapa-ko igo nituen. Zaldi ederra izan zen nerekin egon zen bitartean.

Noizbait zalditik erori al zinen?

Bai, zaldi gainean ordu asko neramatzan egun bat zen. Aulkia mugitu egiten zela konturatu nintzen, baina helmugara iristeko ordu erdi besterik geratzen ez zenez ez nuen

ondo jarri. Gutxira, aulkia mugitu egin zen. Zaldiari hainbeste min egin zion bi hankatan jarri eta lurre-ra bota ninduela. Zorte handia izan nuen, erorketa larria izan zen, baina kolpeak besterik ez nituen izan. Lezioa ikasi nuen.

Zer ikasi zenuen artzain bezala lan egiten?

Zaldian ibiltzeaz gain, ardiak hiltzen eta ogia egiten ikasi nuen. Ramonek esan zidan ardi bat hiltzen banuen hoberena izan zedila. Berak erakutsi zidan ardiak hiltzen eta azala kentzen. Baita ogia egiten ere eta, adibidez, kanpamentuaren inguruan egur errea jartzeko kaskabel sugeak urruntzeko. Gauza beltz bat ikusten dute eta ez dakitenez zer den, alde egiten dute. Zorte handia izan nuen lehenengo irteera berarekin egin izana.

Nola egiten zenuten garbiketarako?

Gogoan dut, 1984ko ekainak 4 edo 5a, urtariletik bainatu gabe nengoen, kanpamentuaren ondoan izotza urtu ondorengo urak ur-jauzi bat

egiten zuen. Bapatean Ramonek arropa kendu, jaboia hartu eta dutxatu egin zen. Berria bezala atera zen. Orduan nik berdina egin nuen, oihurik ez zuela egin ikusita. Ur hotzak izugarritzko inpresioa egin zidan, ez nintzen atera nahi nuenerako. Atera nintzenez esan nion ea nola bainatu zitekeen ur izotzu horretan eta ohituta zegoela erantzun zidan. Azkenean, ura berotu behar izan nuen hotza kentzeko.

Zer jaten dute ardiek?

Badago landare bat malma izeneko. Oso ona da eta asko gustatzen zaie. Deskuidatzen bazara berriro itzuli eta gehiago jaten saiatzen dira. Nik pentsatzen nuen 'ez dago gehiago eta! Handik pasa direnean dena bukatu dute!'. Horregatik ere bizkor ibili behar duzu eta norabide egokia eman.

Egia al da puntualtasuna oso garrantzitsua dela bildotsekin ibiltzerakoan?

Bai. Behin bost minutu berandutu nintzen eta goiz osoa kostatu zitzaidan zuzentzea. Kontuan izan



Snow Canyon. Elko-Nevada. 1986ko uztaila.



Idaho city - Idaho. 1984



Boise Top. 1984ko uda. Idaho.

2.300 buru zirela. Nik ondorio bat atera nuen: 5:30ak eta 6:30ak artean egon behar nuen han puntual norabide egokia emateko eta atzera itzuli ezin ahal izateko.

Ardi guztiak ezagutzen zenituen?

Azkenean bakoitza zein den ezagutzen duzu. Bat bazegoen niretzat berezia zena. Arkumeak urtarrila eta otsailean jaiotzen ziren normalean, baina hau ekainak 4ean jaio zen eta noski, besteak baino txikiagoa zen. Toki guztietan galtzen zen eta ni atzetik bila, berarekin enkariñatu nintzen eta. Deitu eta segituan kaso egiten zidan. Behin ibaia pasatzen ari ginela, arkume guztiak pasa eta ez zen agertu. Bere amak ere ez zuen soinurik egiten, buelta bat eman eta ez nuen aurkitu. Hurrengo egunean bapatean 'bee!' entzun, eta hantxe zegoen. Gau han pasa zuen eta ez nintzen konturatu. Ez didazu sinistuko baina pozez negar egin nuen. Ez zen nirea baina oso berezia zen niretzako. Oraindik gogoratzen naiz, eta pentsatzen dut zer izango zen ardi hartaz. Hurrengo artzaina Berastegikoa zen eta esan nion ondo zaindu

zezala. Ez zela nirea esan zidan eta ez arduratzeko. Hala ere, zaintzeko esan nion, hainbeste kariño hartu nion pena ematen zidala uztea.

Non bizi zineten neguan?

Rantxoa 900 metroko altueran zegoen eta hasieran ohitzea kostatu egin zitzaidan. Uraren zaporea eta arrautza frijituena, adibidez, ez ziren berdinak. Ohitu nintzenez, denetatik jaten nuen. Martxoan ateratzen ginen apirila bukaera arte, 3.000 metroko altueraraino. Kanpamenduak kanping dendak izaten ziren karro baten gainean jarrita. Karro kanpoa deitzen dira.

Zergatik erabaki zenuen etxera itzultzea?

Nik oso soldata ona nuen. Gainera, azkenaldian artzantza utzi eta txofer bezala lan egiten nuen ganaduarentzako ura eramaten 12 toneladako kamioiarekin. Baina etorkin asko iristen hasi ziren Estatu Batuetara, asko legez kanpo. Gehienak Mexikarrak baina baita Nikaraguakoak, El Salvadorrekoak, Guatemalakoak, e.a. Zortzi milioi etorkin inguru zeuden Texas eta California artean eta Reaganen Gobernuak hura moztu nahi zuen. Horretarako Weinberger legea

atera zuen: 1987 urtean kontratua bukatzen zitzaien etorkin guztiak estatutik joan behar ziren, kontratua zutenak itzuli zitezkeen zahartasuna mantenduz. Nagusiak beste sei hila-beterako kontratua egin zidan baina lege berri hori zela eta etxera itzuli behar nuen. Hala ere, zin egin zidan itzultzerakoan zahartasuna mantenduko nuela.

Zergatik ez zinen bueltatu Ameriketara?

Etxera itzuli nintzenezan nere ideia berriro Ameriketara bueltatzea zen bania anaia orduan ezkontzen zenez, pixka bat gehiago geratzea pentsatu nuen. Zizurkilgo Lizarain zerrategian hasi nintzen lanean eta azkenean zazpi urtez egon nintzen. Ez naiz damutzen geratu izana, baina beti gogoratzen naiz zein lan baldintza onak nituen Ameriketara.

Orain dela lau urte Jesus berriro bueltatu zen artzain ibili zen tokira. Berak lan egiten zuen enpresa desagertua zen, baita lehenengo egunean ezagutu zuen emakume hura. Hala ere, lagun batzuk han jarraitzen zuten eta bera egondako lekuak erakutsi ahal izan zizkion bere emazteari. ■

Azaroaren 8an, beheko plazan

*Bi zero zero zortzi
zituen urteak,
azaroak gainera
zortziak beteak
seigarrena zuen ta
eguna asteak
goiza urratu zuen
garrasi tristeak*

(Orioko balearenak)

Euritik franko izan dugu 2008ko udazkenean. Hezea eta umela nonahi. Alabaina, azaroaren 8an euririk egin ez zuen egun bakan horietakoa izan zen. Eguzkia ere ikusi genuen. Goizeko 9ak jo gabe zeuden artean, plazan autoa laga eta beheko plazako bidea hartu nuen. Hezea zegoen giroa, laino-printzak ugari, zeruaren urdina sumatzen zen, hala ere, eguzkia ikustear genuela seinale. Ordurako jende-aldra bilduta zegoen Leteko atariaren inguruan: haur, gazte, heldu eta zahar. Gehienak ataritik at zeuden. Barruan txerria hilko zutenak, txerrizalea eta hainbat lagun kamera eskutan. Argazkilari bat eta bi kamera egotea zen hitz egindakoa: Mendiko Etxeko Xabier Artola argazkiekin; Otsamendiko Joxean Urbietta kamera profesionalarekin eta Peruko Antton Sorarrain. Bidenabar, Anttonek urte batzuk lehenago jaiotetxean grabatutako bideoa ikusgai zegoen Kultur Etxeko erakusketan.

Burdina-sarea saltatu eta neroni ere kokatu nintzen argazkiak ateratzeko asmotan. Argazki-kamerarik ez, ordea; i-phenon prestazioak frogatzeko parada ederra nuen. Zabalik zen Leteko ukuiluko atea. Barruko argitzaletan, bospasei lagun, burdinazko kaiola baten ondoan zutik. Kaiolan txerria. Txerrama belzkote galanta! Ilaje beltz trinkoak basurde itxura zemaion. Nerbioak sentitzen ziren giroan. Sartu egin naiz ukuiluan txerriaren argazkia egin asmotan bizi-bizirik dagoela artean. Argazkiak egin egin ditut, argi gutxiegi baina eta ilunak irten dira.



Garmendiko mahaia, hamaika hilketen lekuko.

Berriro kanpoan. Jendea zain ikuskizuna noiz hasiko. Txerramari buruzko txantxak ere ez dira falta ihes egingo duela eta ezin izango dutela hil. Barruan hasi dira lanean. Txerriari kakoa sartu nahi diote kokotsean. Ezin asmatu dabil Apeztegiko Iker, herriko agoazila. Engantxatu ezinik dabilela, txerria ez duela burua toki egokian jarria, ... Etorri da etxeko nagusia, Jose Inazio Gorostidi, burdinazko haga batekin. Sartu du kaiolaren barroteen artean eta txerriari burua altxarazi nahi dio. Alperrik, honetan ere. Txerri-hiltzailea eta lagunak solasean. Tentsioa giro. Peruko nagusia, Aitor Sorarrain, metro eta laurogeita hamar pasa, besoak zabalik atera da lasaitasun eske. Barrura egin du atze-



1



2



3

1. Hasi gabe artean, oihala altxatzearen zain.

2. Nireak egin du!

3. Garo-sutan azala erretzen.

ra. Jose Inaziok atea itxi egin du. Lasaitasuna behar omen dute kakoa sartzeko. Sobra ere, ikuskizunaren hasiera galdu egingo dugu.

Barruan benetan zer gertatu den ez dugu ikusi. Txirrioa entzun da, laburra eta ez oso ozena. Jendea zain. Atea zabaldu egin da eta bost gizonetako hel-duta atera dute kanpora eta mahaian etzanarazi. Garmendikoa omen da mahaia. Peruko Aitor Sorarrain, Leteko Jose Inazio, Berandoingo Jose Luis Maitegiko Martin eta Juan Inazio. Ikerrek kakoari heltzen dio. Esamesa asko ibili da herritarren artean txerriari kakoa nola erantsi dioten. Bizkaiko txerriarenak oroituta, bateren batek, mazoa hartuta Pepetxorenak zeinek egin duen galdetu du maleziaz. Egia horretatik ez omen dago oso urrun.

Maitegiko Lurdes barreño urdina hartuta gizonetakoengana hurbildu da. Zalaparta handia dago inguruan. Denek bertatik bertara ikusi nahi dute gertatuko dena. Ikerrek labana sartu dio txerriari lepoan, borbor atera da odola. Lurdes ontzian biltzen hasi da, etengabe eraginez, odola bildu ez dadin. Txerria mugitzen saiatzen da. Gizonetakoek tinko eusten diote ordea. Begiak begiratu dizkiot. Begirada berezia du, atzen odol-tantak isurtzen ari den honetan. Ez dakit zer adierazi nahi duen: tristezia, gertatzen ari dena ez ulertzea, etsipena, ...

Txerriak atzen hatsa bota du. Gizonetakoak askatu egin dute. Etzanik gelditu da mahaiaren gainean. Ikerrek atzen begiratu egiten dio. 'Ez haiz gehiago mugituko!' pentsatzen arituko da akaso; labana eta eskuak odolaren gorriaz zikinduta.

Traktorea hurbildu dute Leteko ataria. Erantsitako gurdia garoz lepo; duela hiru igande herriko umeek bildutakoa da. Algara eta zalaparta umeen artean. Ataria zabaldu dute eta traktorea sartu egin da. Festa-aren hasiera kanpo aldetik ikusi dutenak barrura sartu dira.

Leteko ukuiluko ate aurreko belaze txikian ohol bat jarrita dago. Hiltzaileek bertara eraman dute txerrama fenwich txiki bat baliatuta. Gainean paratu sute saihtsen aldetik, garo lehorrez estali eta su eman diote Jose Inaziok eta Maitegiko Martinek. Laster ke urdina igotzen hasi da. Gero gar gartsuak. Argazkiak egiten jarraitu dut. Haize leuna dabil, norabide jakinik gabekoa eta horren ihesean nabil argazkiak egiteko.

Makilak, erratzak eta eskuareak baliatuta garoa txerramaren gainean egon dadin arduratzen dira orain, lehen txerriari oratzen ibili direnak. Beharrezkoa den heinean garo gehiago hartzen dute gurditik. Garoa erretzean, txerramaren azala gelditzen da ikusgai, erretako hileen errautsaz estalita. Alde batetik egoki erre denean buelta erdia eman diote beste aldetik



4. Txerriaren azala garbitzen

5. Txerria txikitzen hasita saihetsak apurtzen

6. Atzen ukituak, bizkarrezurraren gainean azala ebakitzen

7. Sarea bandera bailitzen

erretzeko. Kearen usain mingotsa sentitu dut, bestelako usain berezirik ez dut aditu.

Erreta ondo erreta dago txerrama. Hiltzeko mahaia oholaren ondoan jarri dute. Bat, bi, hiru eta lau, txerria mahaiaren gainean jarri dute atzera. Mangera erantsi diote askako iturriari, zepiloak hartu eta txerriaren azala garbitzeari ekin diote. Eguzkiak giroa gozatzen du. Errautsaren eta kedarraren beltza joan da. Txerriaren azala zuriak agerian gelditu da. Hilik bizirik baino txerri itxura handiagoa du, alajaina! Segidan apatxetako azkazalak kendu dizkiote.

Ordu bete inguru daramagu lanean. Ikuskizuna luzatzen ari da. Ikusle batzuk nekatu egin dira edo, jendemultzoa txikiagotu baita.

Txerrama irekitzeko ordua heldu da. Mahaian dago hankaz gora. Ikerrek egingo ditu harakin-lanak. Buruaren aurrean jarrita, bular aldean sartu dio labana, gorputzaren erdiko ardatzean, eta maisutasunez, azala ebaki du, urdai zuria agerian utzia. Kokotseraino egin du ebakia. Gero, saihets batean jarri eta ipurdi alderantz hasi da ebakia egiten. Argazkilariorok erdi borrokan irudi onak lortzeko. Aizkora txikia hartuta Jose Inaziok bularrezurra erdibitu du.

Sarea atera du Ikerrek. Makila bat ekarri dute eta mutur batean jarri dute zabal-zabalik, bandera bailitzan: hilketaren bandera! Ate ondoan dagoen ganadua lotzeko eraztun batean sartu dute makila eta hai-

zean dantzan dabil. Eguzki-izpiek sarearen zuritasuna areagotzen dute. Ukuiluan sartu naiz, banderari argazkia kontrargitan egin asmoz. Alabaina, i-phonek ez du horretarako nahikoa abilidadarik! Bien bitartean, barrenak hustu dizkiote zerriari. Albaitariarentzako zatia ere hartu dute. Gibela Asuni, Leteko etxeko-andreari eraman diote. Geroko hamaiketarakorako gisatuko du. Albaiteroaren analisiaren berri ez da izango artean. Ez izan kezkarik! Trikina muskuluetan egoten da eta gainera ondo egosteak hil egiten du!

Heste, tripa eta gainerakoak balde batean bildu dituzte. Txorizoak eta odolkiak ez omen dira txerramaren hesteekin egingo, erositakoekin baizik. Hesteei simaurra ketzean lan nekoso eta zikina da!

Lau katu gelditzen gara. Txerria prest dago beratzen uzteko arratsaldean despieatzera etorriko den harakinaren zain. Atzen aurreko lana gelditzen da: urtxiloa eranstea. Urtxiloa bi hortzeko haga da. Urtxiloaren bi hortzetako bat, txerriaren kokotsean sartu behar da, gero haga zutik jarri eta txerria oso-osorik airean egoteko. Sartu dioten urtxiloa, jasotzea ez da lan makala izan, ez ditu alferrik txerramak 300 kilotik gora pisatzen. Zutik jarri eta atearen ezker aldean jarri dute, eguzkitan. Ikerrek bere atzen lana egin du. Labana hartu eta ebakia egin dion bizkar hezurtean goitik behera.

Lanak ia bukatu dira. Hamaiketakora joan baino lehen, tresnak eta inguruak garbitu behar dira. Ekin diezaiozun! ■


Umeen deia



ALTZORBE

Alkizako jaiak 1960an. Tartean idazleetako batzuk daude.

Asteazken egun batez, Elena Legorburuk, liburutegiko langilea orduan, liburu bat aurkitu zuen alkizarrek idatzitako hainbat konturekin. Jakinda niri horrelako gauzak asko interesatzen zaizkidala, ekarri egin zidan, eta bete-betean asmatu zuen. "Umeen deia" du liburuak izena, eta orain hirurogei bat urte idatzitako hainbat bidaiari buruzkoa da. Zuei ere gustukoa izango zaizuelakoan, ondoren oso osorik transkribatuta jar-tzen dizkizuet, beren egile eta guzti.



Alkizatik- UMEEN DEIA artu degu illero bezala ta kontu oso politak jartzen ditu. Nik ere idatzi nai dizuet, eskola etortzen naiz ta oso gustoa nabil eta gure erriko plaza oso polita da ta antxe ibiltzen gera jostatzen. Oraingoan guk Alkizatik biatzen ditugun kontuak ikusi ta ia gustatzen zaizkizuen. Agur.

Aranzabé tar Rosa Mari, 10 urte

Alkizatik- Bein, basarri batean, morroi bat artu omen zuten ta morroiak galdetu omen zion nagusiari: ze ordutan jeiki bear det?
Eta nagusiak erantzun omen zion: Gure etxeko despertadorea actuaren arrantza izaten da eta ez daukazu lo egin besterik arek arrantza egin bitartian.
Lendabiziko egunian, oso berandu arrantza egin omen zion eta morroia oso kontentu. Urrango egunian, ordu ta erdi lenago egin omen zion eta morroiak esan omen zuan: ¡Arrania! Atzo baño gaur lenago deitu zidak.
Irugarren egunian berriz, goizeko lautan egin omen zion arrantza. Morroia asarretuta jaiki omen zan, ta ikullura juan ta artu omen zuan, atiaren atala eta asi omen zan "dinbi ta danba" astua jotzen.
Orduan nagusiya jeiki zan ta juan zan ikullua ze pasatzen ote zan ta hango dinbi-danba ta ixtillua; eta galdetu zion morroiari:
Ze ari zera, gizona?
Ze ari naizen?...despertadorea arreglatzen.

Beobidé tar Kontzita. 11 urte

Alkizá tik- Beste errietako umeak
karta egiten dutela eta guk ere egin
beaz degula esan digu apez jaunak.

Ori dala ta emen gatoz gu ere kartatxoekin,
eta eskola bukaeran nolako exkursioa egin
genun esango dizuegu.

Julio ren 13 an goizian bederatzi tan maixu-maestrakin irten
giñan Alkizá tik ogei ta amasei ume, neska ta mutil, Astea-
súko Agoté ren autobusean. Tolosá tik barrera Loyolá ra juan
giñan, eta an San Ignazio ren jaiotetxea ikusi genduan, eta
txintxoak izateko Aita Gure bat erretzatu genion gure zain-
dari haundiari. Andik Zarauz erri politera jo gendun. Ber-
tan bazkaldu genduan, eta arratsaldeko lau ta erditan itzu-
litan, Kostari buelta emanaz, Igeldóra joan giñan. Eta ibili
txalupetan, laberintoan eta mendi rnuan diru guztik gasta-
tu arte; eta etzetik eramandako puskak jan ondoren, Lasar-
te, Andoain, Billabona barrenetik gure erri maitea dan
Alkizá ra etorri giñan. Eta alkar utzi eta gero ixil-ixilik
nor bere etxera.

Gauzkoz bukatu da ta urrungan geiago. Agur.

Josefina Gabirondo, 13 urte; biar Gabirondo, 12 urte

Alkizá tik- Neskame bat dendata joan
zan eta eskatu zitun zazpi arrautz eta pre-
jitu zituan. Eta gizonak esan zuan: lanean
aritu zalako lau arrautz arek jango zituala
eta andreak esan zun ezetz berak jango
zituala lau eta gizona kiru. Eta gizonak
esan zion alde egingo ziola eta alde egin
zion. Andrea billa ibiltzen zan ikusten
zituan etxe guztitan galdetzen zun ia aren
gizona ikusi al zuten, ezetz danak esaten
zioten eta billa segitzen zuan eta etzuan
beñere billatzen.

Saralegi tar Josefa, 9 urte

Alkizá tik- Bein ba-omen-zan
andre bat jostuna beti otzak egoten
zana ta il zanean zerrua egokitu zan.

Baña zerrua ere otzak zegon eta txirrikitu
batetik purgatoriu ikusi zuen eta San Pedro-
ri permisua eskatu zion ara juateko, ta San Pedrok
baietz.

Purgatoriotik inpernu ikusi zuan ta iruditu zitzaion
an sua aundiagoa zegda eta galtzagorri esan zion ia
utziko al zion inpernu juaten; eta baietz-baietz joate-
ko, esan zion arek. Ala gero San Pedro akordatu zan
andre ura purgatorira juna zala; eta ara juan zan billa
ta an inpernu juna zala esan zioten, ta ala galtza-
gorri, an ote zegon galdetzeko, inpernuko atea bultzat
ta iriki zun, ta andreak barrendik esan zun:

Itxi ate ori otza dator-da.

Saralegi tar Kontxita, 12 urte

Alkizá tik- Bein batean joan Francisco
garizuman txarteletara. Erretore jaunak
galdetu zion: Nor da Jaungoikoa, Francisco?

Jaungoikoa bera

Orixe aixa esan dezui: obra miserikor-
diazkoak bai al dakizkizu?

Ez jauna

Ez dizut ba txartelik emango. Datorren
iganderako ikasi ta etorri.

Zabalá tar Kontxita

Alkizako Tours-eko San Martin parrokia

Zer da Alkizako Parrokia, nortzuk dira osatzen dutenak ?

Jesusek sinestu nahi dugun persona multzo batek osatzen dugun elkarte da Parrokia. Jesus ezagutu nahi dugu; bere Hitzak, bere Egiteak, bere Bizitza, eta horrela berak egindako Bidea jarraitu dezagun, bere Bizitzak egiten duen Argiarekin gurea argituz...

Jesusek esaten du: "nahi duenak jarrai bekit", eta ni egongo naizen lekuan egongo da bera ere. Guk bide hori jarraitu nahi genuke, eta Jesusen erakutsiak eta Bizitza guran agertu daitezela... AMETS haundi bat da hori noski, baina ona da amets egitea, pauso txiki batzuk ematen joateko...

Honek hausnarketa haundi bat eskatzen digu ustez parroki elkarte osatzen dugun gurtzioi.

Zer egiten dugu?

Igandero eta beste egun batzuetan, elizan, tenploan, biltzen gara. Bertan Jaunaren Hitza entzun eta hausnartzen saiatzen gara, eta gero Eukaristia berriztatzen dugu, Jesusekin elkar batasun hori sendotu dadin, Maitasun misterio honetan murgildurik.

Esperientzia honek elkarte bizi-berritu dadin du helburu, gero Jesus eta bere Maitasuna gure

bizitzan azaldu daitezzen, bere testigu izanez.

Hau da gure Erronka! Bere testigantza ematea...

Haurren Katekesia

Jesus, Haurren Lagun mina da: "utzi umeri neregan etortzen" esaten zuen. Umeek Jesus bere lagun haundi bat bezela ezagutu eta onartzea nahiko genuke. Jesus bezela hazi daitezten: soingorputzean, adinean eta bizi-jakindurian.

Zeregin honetan gurasoak dira noski katekista bereziak. Umeak etxean jaso eta osatzen du gero bere bizitza osoan bere bizimolde izango denaren oinarria.

Gero beste katekistak eta elkarteak saiatuko dira heziketa hori gertutik laguntzen.

Eta Gazteak?

Gutxi eta gutxitan ikusten ditugu gure bileretan...Ez dugu asmatu



Erretaula eraberritu ondoren.

noski gazteentzat interesgarri izango litzatekeen zerbait eskaintzen... Zer egin? Gustatuko litzai-guke gazte batzuekin elkarriketaren bat sortuko balitz. Seguru gaude Jesus benetan ezagutzen hasiko bagina, berarekin engantxatu egingo ginatkeela, baita gazteak ere. Erronka haundi bat botatzen digu Jesusek, baita gaz-



San Martin eliza XX. mendearen hasieran.

teei ere. Horretara bultzatzen lagundu nahiko genuke.

Sozial Pastoraltza

Sinesmena eta Jesusen Espiritua "zerbitzuan" azaltzen dira bereziki. Horregatik parroki-elkartek zerbitzura zuzendu behar ditu bere ahaleginak. Hauexek aipatuko genituzke, beste askoren artean:

Gaixoen laguntza. Talde bat osatu nahi da zerbitzu hau bultzatuko duena. Bada hainbat gaixo, zahartzaroan eta bakardadean ordu asko pasatzen dituen, etxetan edo erietxeetan... Jesusek

esan zuen: "gaixo egon nintzan eta nigana etorri zineten"

Espetxeko Pastoraltza. Zergatik ez? Zerbait egin genezake. Bada go honetan saiatzen diren Komiteetan zenbait jende... Gure elkartean ere sortuko diren itxaropena dugu. Jesusek esan zuen baita ere: "espetsuan egon nintzan eta bisitatzera etorri zineten".

Caritas. "Eman zuek jaten..." esan zuen beste behin. Eta azken epaia aitatzean berriro "Goseak nengoen eta jaten eman zidazuten". Laguntza haundi bat eman go lioke elkarteari, diru-biltzea, solidaritatea, bultzatuko luken komite bat sortuko balitz.

Apaizik egongo ez denean, zer ?

Apaizik ez balego Elkartek jarraitu egin behar du. Jesus betikoa da, apaizak aldi batekoak... Laikoak ari dira prestatzen elkartearen ospakizunak zuzentzeko. Toki askotan errealitate bat da iada. Eta oso ondo egin ere! eta herriak erantzun ere!

Jesusen Hitza bat da, apaiza egon ala ez... Eta Eukaristia, Jesusen Maitasunaren Agiria, hor izango da beti. Horretarako ere prestatu beharko da gure Elkartea.

Gure Elkartea izan dadila Berri On bat Alkizako Herrian. ■



ARABA (WWW.PANORAMIO.COM)

Legutiano (Billarreal).

Ai, ama! Ai, ama!

“Juanito Aranburu zeritzaion nere lagun batek eta biok, fusil ametrallador txeko bat genduan. Naiz sekulako tiro-pilla egin, aren kañoia etzan lertzen, tiroengatik galdan gorri-gorri jarriagatik ere.

Juanito Aranburu ori Alkiza'koa zan, oso mutil leiala eta ausardi ikaragarrikoa. Onela esaten zidan:

– Etxeberria txoro ori nun dabillen etzekiat. Ezin egon nauk tiroka hasi gabe.

Etxeberria aurrera joana zen. Alako batez, or etorri da eta esan digu:

– Kañoi-bateri bat oso-oso ortxe zegok erriaren sarreran. Joan zaitzete ixil-ixilik ondo-ondoraino. Inguruan jartzen zeratenean, egin zazute deskarga bat ametralladorekin. Danak lo egongo dituk, naiz guardi bat edo beste euki. Deskarga orrekin, beren etzan-lekuetatik dan-danak altxako dituk, eta zuek, alto emanaz, guziak arrapatuko dituzute. Iñor il gabe ori egitea bazegok, eta egin!

Arek agindu bezelaxe egin genduan. Deskarga egin genduanean, or atera dira arrapastaka

beren *tienda de campaña*tik, begietako makarrak kentzeko denborarik gabe eta onela oju egiñaz:

– Gora Euzkadi! Gora Euzkadi!
¡Nos entregamos!

Hogei ta bost ziran danak. Etxeberria'k erdi-erditik asmatu zuan. Gau artan ederki asko nabarmendu zan, artzantza gauza askotarako eskola ona dala.

Etsai aiek geren lagunai entregatu eta atzeko aldera bialdu genituan. Eta gu an gelditu giñan, geren lau kañoi eta guzi.

Guretako iñork kañoi aiek mane-
jatzen jakin izan balu, orduan bai
guardiazibil begi-bakar arek
etzuala torretikan geiago tirorik
tirako.

Juanito nire laguna eta biok
pozez zorutzen geunden: ia tiro-
rik gabe eta iñor il gabe, bateria
osoa arrapatu, alajañetan.

Bañan ametralladorekin egin gen-
duan tarra-tarrako tiro-otsarekin
lotan zeuden guziak esnatu ziran,
eta an ekin ziguten bazter guzie-
tatik tiroka.

Kañoi aiei kasorik egin gabe eta
ixil-ixilik ibillita kaleetan sartu izan
bagiña, ordubeterako Billarreal
gurea izango zala uste det. Bañan
etsai guziak esnatuta, an etzego-
en giro, alajañetan.

Alako batez, Urbina aldetik or
datoz gure kontra bi kamioi blind-
datu, garai batean arrobietan ibil-
tzen ziran oietakoak.

Gu danok, aien motorraren saie-
tseko txapari tira eta tira eta tira
asi giñan, guritzearren; eta, minu-
tu gutxi barru, bi blindatu aiek
sutan jarri genituan.

Bigarrenengo sake arekin, dan-dana
egiña zegoala uste izatekoa zan.
Bañan mesede bearrez, kalte izan
genduan.

Blindatuak sekulako su-garrak
jarri zituzten inguru aietan; eta
orduan torreko guardiazibil arek,
naiz begi-bakarra izan, ederki
asko ikusten ginduan.

Baita ere bi edo iru tellatu-gallu-
rretan, gu etzanda geunden
hogeitaz hamar edo berrogei
metrora, jarri ziran etsaiak. Aiek,
bururik ikusten bazuten, burutik
sartzen zuten.

Ez gerran bakarrik.
Pakean ere berdin-
berdin gerta litzaioke
bati: ustez lenbiziko
kolpea ongi egin,
bigarrena ere bai,
bañan irugarrena
gaizki. Guri ere orixe
pasa zitzaigun, blind-
datu aiei su emanda.

Jakiña, gu ere ezin
tira gabe egon, naiz-
eta askotan nora tira-
tzen genduan ez
jakin. Eta hainbeste
tira eta tira, kartutxe-
rak bukatzen ari
ziran.

Egunsentia allegatu
zitzaigunean, or eto-
rri zait gure buru egi-
ten zuana, Urdiña
tolosarra, eta onela
dit:

– Alkain, oraintxe
munizioak erre diz-
kiagu eta laster bat
ere gabe gaituk. Ea,
bada, kaminero-etxe
artara joan eta fula-
mentua egiten
deken.

Juanito Aranburu eta biok,
geren fusil ametrallador arekin,
txandaka ari giñan. Une artan
bera ari zan, eta alako batez:

– Ai, ama! Ai, ama!

Lau bat metrora geneukan.
Bereala joan nintzan. Eldu nion
eta alperrik: kopetaren erdi-erdi-
tik zeukan balazoa. Nere Jesu-
kristo Jauna esaten asi zan, nik
lagundurik, eta berealaxe il zan,
nere besoetan.



Gudariak.

Urdiña ere laguntzen asi zitzai-
dan, eta onela esan nion:

– Beidok! Beidok! Makurtu adi!

Bañan makurtzen asi zan orduko,
zast!, ari bular erdian balazoa. Au
ere Nere Jesukristo Jauna esanaz
il zan.

Bi alako mutil jator une txiki bate-
an iltzen ikusita, arritzekoa litza-
teke negar-malkoa ez ixurtzea.
Negar-malkoz eta marru egiñaz,
bi gorputzak alkarren gañean
gurutzea eginda utzi nituan.” ■

Enrike Larrarteren oharra. Testu hau Iñaki Alkainek eta Antonio Zavalak idatzitako liburu honetatik jaso dut: *Gerrateko ibilerak I* – Auspoa 148, 127-130 or. Aipatutako liburuan Alkainek 1936-39 gerratean, *Itxarkundia* batailoian, bizitutako pasadizoak datoz. Juanito Aranbururen aztarnak bilatzen saiatu gara, baina huts egin dugu.



1: Aginako Eustakia Eizmendi; 2: Mendikoetxeko Veneranda Mujika; 3:; 4: Aginako Dominika eta Klara Sarasola; 5: Garaikoetxeko Francisca Urruzola; 6: Maestraren alaba Teodora; 7: Aranguren berriko Maria Antonia Zugasti; 8:; 9: Garroko Adelaida Ugartemendia; 10: Intxaurrandiko Maria Urruzola; 11: Basatxabalgo Maria Antonia Saralegi; 12: Maistra, Eulogia Garoña; 13:; 14:; 15: Aretako Gregoria Otaegi; 16:; 17: Apaiztegiko Bernardina Zabala; 18: Arantzabeneko Maria Bautista Tapia; 19: Azaldegi-Etxeberriko Klaudia Roteta; 20: Maistraren alaba, Gloria; 21: Berandoaingo Iguaran; 22: Bengoetxeko Maria Legarra; 23: Albiztegiko Julia Aranzabe; 24: Mariantonenako M^a Angeles Eizmendi; 25: Apaiztegiko Hipolita Zabala; 26: Intxaurrandiko Maria Celestina Urruzola; 27: Mendikoetxeko Ursula Mujika (gaur egun bizirik dagoen bakarra); 28: Erreroneko Veronika Arregi; 29:; 30: Antzietako Felisa Roteta; 31: Agerreko Antonia Arsuaga; 32:

Errepublikan aurreko eskola

Argazki hauei begirada bat ematean, zenbat gauza aldatu diren ikusten dugu, nabarmena da janzkera aldaketa; garai bateko "apreta txuriak" oinetan eta mutilen kasuan eskuetan txapela. Argazkiak 1926 edo 1927an ateratakoak dira; handik hona makina bat egun pasa dira eta bitarte

horretan aldaketa handiak izan ditugu; pentsamenduan. bizimoduan, ohituretan... eta zer esanik ez eskolan eta gure haurren heziketan.

Urte horietan Alkizako eskolara 60 haur baino gehiago etortzen ziren. Ikasleak 6-11 urte

bitartean ibiltzen ziren komunio handia egin arte. Hala ere, askok utzi behar izaten zuten eskola 9 edo 10 urterekin etxean lanean aritzeko edo beste nonbaitera lanera joateko. Maixu-maistra bakoitzak adin desberdineko 30 ume edo gehiago izaten zituen ikasgelan, nola egon beharko

zuten? Derrigorrez geldirik eta erne egon behar!!!. Eta hori lortzeko mahai gainean denen begibistan han edukitzen zituzten makila eta erregela .

Peruko Antonio Sorarrainek bere anai bati Cecilio Saez de Urturi maixuarekin gertatutakoa honela kontatzen du *“makila puskatu omen zitzaion eta nere anai bati berria ekartzeko agindua eman. Urrungo egunean or dator nere anaia urrez gorria eskuan duala. On Zeziliok bi edo hiru zartateko eman omen zizkion urritz berri orrekin nere anaiairi nolakoa zen probatu nairik. Alako beste batean urritz gorri bat ekartzeko gogoak kendu omen zitzaizkion Peruko eskola-umeari!”*

Maisu-maistra asko kanpotik etorriak euskaraz ez zekitenak ziren eta erabiltzen ziren liburuak gazteleraz ziren. Makina bat estuasun pasa beharko zituzten tutik ere erdaraz ez zekiten ume haiek!!. Dotrina, berriz. euskaraz izaten omen zen, Joan Irazusta alkizarrak idatzitako liburua erabili zuten urte askotan.

Zer ikasten zen? Irakurtzen, idazten eta matematikako lau eragiketak ikastea zen orduko ikasketen ardatz nagusia, kaligrafiari ere garrantzi handia ematen zitzaion. Horiez gain, geografia eta historia ere zertxobait lantzen ziren. Liburu elizkoiak erabiltzen ziren eta dotrina eskola bertan irakasten zuten. Liburuak gaika izaten ziren eta bakoitzak bereak erosi beharrik ez zuen izaten eskolakoak baitziren. Eskolako ordutegia nahiko trinkoa izaten zuten, ez baitzen errekreorik, eta aste luzea, larunbatean goizez eta arratsaldean joaten baitziren eskolara, tartean, hori bai, ostegun arratsaldea jai.



1:; 2:; 3: Aretako Lukas; 4: Mendikoetxeko Luisito Mujika; 5: Basatxabalgo Jose Saralegi (bizirik dago); 6: Katalandegiko Santi Gabirondo; 7: Erreroneko Telesforo Arregi; 8:; 9: Antzietako Joxe; 10: Garroko Ugartemendia; 11: Agiñako Jose Ramon Eizmendi; 12: Aretako Ignacio Otaegi; 13: Bengoetxeko Felipe Legarra (bizirik dago); 14:; 15: Katalandegiko Joxe Gabirondo; 16: Maisua; 17:; 18: Azaldegiko Roteta anaia; 19: Mendikoetxeko Celestino Mujika; 20: Intxaurandiko Antonio Maria Urruzola; 21: Albiztegiko Bernardo Aranzabe; 22:; 23: Saletxeko Paulino Arsuaga; 24: Garroko Narciso; 25: Urrutikoetxeko Martin Elola; 26:; 27: Arritzako Antonio eta Eusebio Zubiaurre; 28: Erreroneko Tomas Arregi (bizirik dago); 29:; 30: Zumitzako Jexus eta Federiko Tolosa; 31:; 32: Peruko Pedro Manuel Sorarrain; 33: Katalandegiko Pedro Gabirondo; 34: Peruko Pako Sorarrain; 35: Garroko Anastasio Ugartemendia; 36: Basatxabalgo Modesto Saralegi

1900ean hasi ziren Alkizan Gau Eskolak ematen, eta garai horretan ere martxan zegoen. Zeintzuk joaten ziren? ume garaian eskolan ibili gabekoak edo gutxi joandako gazteak joaten ziren iluntzetan eskolara, gehienbat mutilak izaten omen ziren ikasle horiek.

Orduko maisuen artean Cayo Calvo eta Zezilio Saez de Urturi aurkitu ditugu, azken honek urte batzuk egin zituen Alkizan, jasotako datoen arabera, 1928tik 1933ra. Argazkiko maisua ez omen da Zezilio, baina ez dakigu ziur nor den. Argazkiko maistra Eulogia Garoña da, bera euskalduna zen eta argazkian bere bi alabak daude: Teodora eta Gloria.

Urte haietan irakaskuntza Don Juarena etxean ematen zen, mutilak

goian eta neskak behean eta maisu-maistrak ere bertan bizitzen ziren. Gaur egungo eskola 1930ean bukatu zen. 1930eko martxoaren 2an Argiako Alkizako kronikaren bukaeraren horrela kontatzen da *“Ikastola galant ta bikaiñak egin dira erri ontan, oraindik itxiak daude, ondo legortu ta egoastu zain noski”*.

Eskola berria bi solairukoa eraiki zen, goian mutilak ibiltzen ziren, behean neskak; bai mutilak eta bai neskak ikas-gela bakarra zuten, geletan sartu eta ezkerretara beheko sua zegoen

Argazkietan ikus ditzakegu orduko ikasleak zeintzuk ziren, plazan, “Madrigal” aurrean aterata daude. Gehienak identifikatu ditugu, falta direnak norbaitek ezagutuko balitu eskertuko genioke gugana jotzea. ■

Oharra: Eskerrak Elizegiko Ixabel Urruzolari argazkiko pertsonak identifikatzen laguntzeagatik.

Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga edo gainbalioaren zerga

Udalek dituzten diru-sarrerak beste administrazio publikoen diru-sarrerekin parekatzen baditugu eskasak direla aitortu behar dugu, bereziki, kontuan hartuta, gero eta zerbitzu gehiago eskaintzea eskatzen zaiela.

Foru ogasunak zerga nagusiak biltzen dituzten administrazio publikoa dira, errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, transmisioen gaineko zerga etab, eta bildutako kopuruaren zati bat udalen artean banatu behar dute.

Beraz, udal administrazioaren finantziazioa hein handi batean beste administrazio publikoen diru ekarpenen menpe aurkitzen da, baina, hala ere, herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak finantzatu ahal izateko udalek hainbat zerga eta tasa kitatu behar izaten dituzte.

Udal zergei buruz hitz egiten dugunean hurrengoak hartu behar ditugu kontuan:

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga. Urbana eta rustika bezala ezagutzen direnak.
- Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga.
- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga (kotxeen zerga).
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.

- Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.

Bestalde, udal tasak aurkitzen ditugu, adibidez zabor-bilketa tasa, ur-hornidura tasa, etxez etxeko zerbitzuaren tasa etab. Tasak udalek eskaintako zerbitzu zehatz batekin dute harremana, eta bildutako diru kopuruak zerbitzu horren finantziaziora bideratzen dira.

Aipatutako bost udal zergetatik udalenzat hiru lehenak biltzea derrigorrezkoa da, bi azkenak aldiz borondatezkoak dira, hau da, udal bakoitzak erabakitzen du zerga mota horiek bildu ala ez.

Alkizako Udalak 2005. urterako udal ordenantza fiskaletan lehen aldiz aurreikusi zuen hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga, eta urte horretatik aurrera zerga mota hori biltzea erabaki zuen.

Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergak, edo gainbalioaren zergak, ondasun higiezin baten edozein motatako eskualdaketa gertatzen denean hiri-lurrak jasandako balio gehikuntza zergatzen du.

Zerga honen ezaugarri nagusiak hurrengoak dira:

1.- Egitate zergagarria.

Zergaren egitate zergagarriak hurrengo baldintza betetzea eskatzen du:

Hiri-lurren eskualdaketa bat gertatzea.

Hiri-lurrei buruz hitz egiten dugunean, planeamenduaren arabera lur urbanoak edo urbanizagarriak izan behar dute. Bestalde, landalurretan, etxea edo baserria jasotzen duten lurrei ere hiri-lur izaera aitortzen zaie.

Eskualdaketa edo transmisioak edozein motatakoa izan daiteke: salerosketa, dohaintza, herentzia etab.

2.- Zergaren subjektu pasiboa.

Zergaren subjektu pasiboa zerga ordaintzeko obligazioa edukiko duen pertsona da.

Salerosketa eta prezio baten trukean egiten diren transmisioetan subjektu pasiboa saltzailea izango da.

Dohaintzetan, herentzietan eta dohainik egiten diren eskualdaketatik subjektu pasiboa ondasunen eskuratzailerak izango da.

3.- Zergaren objektua.

Gainbalioaren zergak hiri-lurrak azken eskualdaketatik eskualdaketa berria gertatu bitarteko denbora tartean jasandako balio gehikuntza zergatzen du.

Zentzu honetan, zergaren kuota kalkulatzeko kontuan hartuko diren elementuak hurrengoak dira:



Santiago ermita bideko etxeak.

- **Hiri-lurraren balioa:** Hiri-lurrak eskualdaketa geratzen den urtean duen katastro balioa da.
- **Transmisioaren egun zehatza.**
- **Aurreko transmisioaren egun zehatza.**
- **Bi eskualdaketen artean igarotako urte kopurua.** Egitate zergagarria gertatzeko gutxienez urte beteko epea egon behar du bi transmisioen artean. Bestalde, gehienez ere zergatuko den balio gehikuntza hogeitau urteetako izango da.
- **Balio gehikuntzaren kalkulua.** Lurrek jasandako balio gehikuntza zenbatekoa izan den kalkulatzeko kontuan hartuko da bi eskualdaketen artean igarotako urte kopurua, eta dagokion koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaio.

1 – 5 urte bitartean:	3,6
6-10 urte bitartean:	3,4
11-15 urte bitartean:	3,1
16 – 20 urte bitartean:	2,9

Modu honetan, bi eskualdaketen artean 8 urte igaro badira, $8 \times 3,4 = 27,2$, lur sailaren balio gehikuntza % 27,2koa izan dela ulertu behar dugu.

Ondoren, balio gehikuntzaren portzentaia hiri-lurraren balioari aplikatuko zaio, adibidez $12.000 \text{ euro} \times \%27,2 = 3.264$, eta emaitzak lur-sailak eurotan izandako balio gehikuntza adieraziko du, zerga oinarritzat joko duguna.

- **Kuotaren kalkulua.**

Lur sailak izandako balio gehikuntzari, oinarri zergagarria, urte horretarako udalak onartua duen zergaren karga tasa aplikatuko zaio, eta horrenbestez, ordaindu beharreko zergaren kuota zehaztuko dugu.

Adibidez:

$$3.264 \text{ euro} \times \% 5 = 163,20 \text{ €}.$$

2009. urterako Alkizako Udalak onartua duen zergaren karga tasa % 5,54koa da.

Azkenik, azpimarratu behar da, zerga mota honen preskripzio epea lau urteetako dela, eta udalak lau urte dituela egitate zergagarria gertatzen denetik zergadunari egoki den kitapena bidaltzeko.

Zergadunek bestalde, udalari egindako eskualdaketen berri emateko obligazioa dute, eta transmisioen eskrituren kopiak udalean aurkeztu behar dituzte. Hala ere, udalak transmisioaren informazio guztia eskuratuko du Notaritzan eta Foru Ogasunetik, baina zergadunaren ez betetzeak preskripzio epea luzatzea ekar dezake. ■

Joan Bautista eta Joan Elias Intxaurreaga, aita hargin maisua eta seme eskultorea

Garai bertsuan, esaterako 1716an, Katalandegiko Joan Bautista Intxaurreandiaga Gaztelan hil zenean, hark bazuen izen eta abizen bereko lehengusu bat, **Joan Bautista Intxaurreandiaga Roteta, 1680?-1747 urteetan bizitutakoa**. Hura Intxaurreandiaga baserrian jaio zen, aita Alejandro eta ama Dorotea zituelarik. Bere ogibidea zela bide, hargina izaki, leku frankotan bizi izan zen emazte eta guzti, adibidez, 1722an Hondarribian eta 1727an Donostian.

Joan Bautistaren egoitza non kokaturik zegoen eta bere bizilekuek Alkizan ardura politikoak, esaterako 1735ean bertako alkate izateko sortu zizkieten arazoak adierazteko, bada dokumentu interesgarriarik. Nire liburu batean honela nioen: *Izan ere, 1734an, Alkizako Udal hauteskundeetako zerrendak egitean, Joan Bautista Intxaurreandiagarena sartu ala ez eztabaidatu eta gora jo zuten. Ea Alkizan bizi zen ala ez zalantzan jarri, aldekoak eta aurkakoak bat ez zetozenez, Korregidoreak Joan Bautistaren aldeko erabakia hartu zuen. Horretarako Joan Bautistaren iritziari kasu egin zion.*

Joan Baupstista de Insaureandiaga tiene en jurisdiccion dela misma villa la Casa y Caseria solar de su apellido una delas principales de dha Villa han estado y estan sus Padres y Abuelos paternos y maternos admitidos a la Vecindad de dha Villa y goze de sus oficios de paz y guerra. Es Casual la



Astigarragako udaletxea Joan Bautista aitak egina.

ausencia de mi parte de dha Villa, por razon de las obras enque esta trabajando fuera.

Joan Bautistak Ana Rekondo lehen emaztearekin lau seme hauek izan zituen: Joan Migel Bizente Madrilen, Bartolome maisu arkitektoa Espainiako zenbait probintzietan, Jose Martin Indietan eta Joan Elias eskultorea Gipuzkoan bizi izan ziren hurrenez hurren. Joan Elias hura Lesakan aita bertako elizaren egitura altxatzen ari zenean, hantxe jaio eta bataiatu zuten. Lehen emaztea hil zitzaionean, Astigarragako Madalena Gurutzeagarekin ezkondu eta Maria Bizenta alaba bakarra izan zuten, Joan Bautistaren zahartzaroan.

Joan Bautista XVIII. mendeko hargin sonatuekin lehiatu zen, eraikuntza erlijioso eta zibiletan, bai Gipuzkoan bai Nafarroan. Alkizan Intxaurreandiaga baserria eta Etxetxo bi eraikuntzak gauzatzeaz gainera, San Martin parrokiako aldare nagusiko mailadia, lauzadura eta idulkia egin zituen. Nafarroan, berriz, Goizuetako parrokiaren egitura amaitu eta Lesakako elizaren obra osoa bere ardurapean egon zen. Harlanduzko egitura bikaina du aipatu San Martin elizak, neurri handi batean Joan Bautistaren obra.

Bestalde, Astigarragako udaletxe berria berak eraiki zuen. Talde lanean, aldiz, Martin Saroberekin Pasai



Alkizako Erretore etxearen proiektua Joan Elias semearena.

Donibaneko Bonantza Kristo Gurtzatua eta Donostiako Santa Maria eliza barrokoa eraiki zuten Lizardi aita-semeek, Martin Sarobe eta Joan Bautista lau harginek. Bizitzaren hondarrean, aipatu lankideekin auzitan ibili eta bere ondorengoek jarraitu zieten testamentu lanei, batez ere Joan Elias semeak.

Joan Elias Intxaurrandiaga eskultorea, 1735-1800?

Alkizan, 1735ean, Joan Bautista alkate zelarik, urte berean, Lesakan aita eliza eraikitzen ari zela bertan jaio eta bataiatu zuten Joan Elias, Barrenetxea lesakatar indianoak aita eta ama ponteko zirelarik. Brijida Jauregi Tomas Jauregi eskultorearen arrebarekin ezkondu zen. Tomas eta Joan Eliasek Migel Irazustaren arte ildoari jarraitu zioten, eskultore barroko izateari alegia.

Bere ogibideak eraginik, Azpeitia, Asteasu, Urretxu, Gabiria, Itsaso eta Albizturren bizi izan zen. Bere bizitzako hiru alderdi ezagun eta garrantzitsu laburki adieraziko dira lerro hauetan, Alkizari buruzko liburuan zabalago landu nituenak hain justu.

Joan Eliasek erretaula batzuen trazak egin eta batez ere beste eskultore batzuekin lankidetzan arte lanak burutu zituen Asteasu, Gabiria, Azpeitia, Abaltzisketa eta Sorluzen. Adituek bigarren mailako eskultoretzat jotzen dute.

Alkizako erretore etxearen proiektua Joan Eliasek egina da, baldintza tekniko oso zehatzak emanez. Aurrekontua 66.255 errealetara iristen zen. Etxearen dotoreziak eta luxuak iritzi kontrajarriak sortu zituen herrian. Halere, proiektua errespetatu egin zen.

Hirugarren alderdi ezkutua nabarmenduko dut. Katalandegi eta

Intxaurrandiaga bi baserrietako intxaurrandiagarren belaunaldietako jaraunspen edo herentzia kontuak garbitu zituen. Ez zen izan txantxetako lana, hogeita hamar urtetako eginkizuna baizik. Arazoa oso konplexua zen. Hiru belaunaldietako zama astuna, jaraunseak Nafarroa, Madril, Zamora eta Ameriketako bizi zirene eta ondasun opa-roak urte haietan inoiz tasatu gabe zeuden. Joan Elias, 1799an, Albizturren bizi zelarik, bere proposamenak onartu zituzten ondorengoek. Intxaurrandiaga baserria eta beste ondasunak tasatu, jaraunselek onartu eta handik urte gutxietara, 1802an, Urnietako notario zen Joan Martin Elolak bereganatu zuen baserria.

Joan Eliasen heriotza agiririk ez da ezagutzen. Honen aita Joan Bautista Alkizako hilerrian ehortzi zuten, semea non ote? ■



JOSERRA AIHARTZA, ELHUYAR FUNDAZIOAREN KORTESIAZ

Haitz-enarak lumaje arrea du.

Mitxiguak

eta azpitzuriyak

Aurten zein animaliarri buruz eskribitu behar nuen pentsatzen niharduela, Urruzolako Pello Joxek etxean habia eginiko mitxigui argazkia egin ziela aipatu zidan. Airean dotore eta azkar hegan dabilzan eta teilatu-hegaltan habia egiten duten hegazti beltz horiei buruz idaztea erabaki nuen.

Hirundo rustica espezieko hegaztiei mitxigo esaten zaie Alkizan

eta Tolosaldean; beste hainbat tokitan, ainara eta euskara estandarrean enara. Azpitzuriyari, *Delichon urbica*, euskara estandarrean enara azpizuria esaten zaio bestetik. Gainera gure artean bada hirugarren bat, haitz-enera, *Hirundo rupestris*.

Hirurak itxura aldetik oso antzekoak dira. Hegan ari direnean zaila da gerturatu arte hiruretako zein den jakitea. Mitxigua guztie-

tan handiena da, 19 cm-ko gorputz luzera izan dezake, azpitzuriya, bestetik, txikiena da, 12 cm-koa. Haitz-enara bien artean gelditzen da, 15 cm-ko luzera baitu eta badu beste biez bereizten duen ezaugarria bat, isatsa urkilatua izan ordez karratua du. Gainera, lumaje arrea du, besteek beltza duten bitartean. Azpitzuriyak mitxiguak baino isats laburragoa du.



Mitxigiek aurpegiaren azpialdea laranja kolorekoa dute eta bibote horiak dituzte.



Azpitxuriya.

Hiruek hegan dabiltzanean harrapatzen dituzten zomorro eta intsektuak jaten dituzte. Migra-

tzaileak dira. Negua Afrikan pasatzen dute eta gure artean udaberri hasieratik, udazkenaren erdialde aldera arte bizi dira.

Mitxigiek eraikinetan bakarrik egiten dute habia; azpitxuriek, ordea, eraikinak nahiago badituzte ere, labarretan ere egin ditzakete. Haitz-enarek, izenak ondo adierazten duen bezala, haitz eta labarretan egiten dituzte habiak.

Mitxigiek habia lokatza, txistua eta belarra edo lastoa usatuz egiten dute. Sabaiaren kontra egiten dute eta oso nekez ikus daiteke barnean zer dagoen. Lau edo bost egun behar dute habia

eraikitzeko. Lokatz-bolatxoak aho-barruan garraiatzen dituzte. Habiaren barrua ilez, lumaz eta antzekoez eroso bihurtzen dute. Bi umaldi izaten dituzte udaberri-tik abuztua bitartean. Emeak 4 edo arrautz erruten ditu eta berak bakarrik txitatzen ditu. Arrautzak errun eta 14-16 egunetara jaiotzen dira txitak. 20 bat egunez aita ehizan ibiliko da umeak elikatzeko eta bitartean emea habian egongo da umezain. Hegan egiteko gauza direnean kumeek habia uzten dute eta 14 bat egun geroago gurasoak bigarren txitaldiaren lanekin hasiko dira. ■



LUIS MARÍA NÚÑEZ

Txondorra

Alkizara itzuli zen

Txondorra egiteko ohitura orain dela urte asko desagertu zen Alkizako baserrietatik. Bost urte igaro dira iada, 2004ko apirilean ohitura berreskuratu eta denbora askoan lehenengoa egin zenetik Intxaur Aundi baserri ondoan, Koldo Jaurerigiren karobiaren inguruan. Aurtentzen tradizioa berriro egi bihurtu da oraingoan Ikili baserriko lurretan.

Urtebete bada Alkizako udalak lehengo ohitura zaharrak berreskuratu nahi dituela. Ideia hau abiapuntutzat harturik San Mar-

tin festa ospatu zen lehenik eta behin, eta ideia ondo atera zela ikusita, txondorraren inguruan lan egitea pentsatu zuten, baita egin ere.

Hainbat bileraren ondoren txondorra Ikili baserrian izango zela erabaki zen. Garmendi Goikoa baserriko Benito Goenaga izan zen ideia errealitatera eraman zuena, Koldobika Jauregi eta Jose Ignacio Gorostidiren laguntzarekin. Aste betean egunero egon ziren Martin Goenagaren baserriko lurretan

txondorra zaintzen ondo erre eta sua itzali ez zedin.

Benitok 23 urte zituela egin zuen txondorra lehenengo aldiz, 1956an. Oraindik ez da ahaztu lehenengo aldi hartaz, "ahazten ez den gauza horietakoa da. Negu gogorra izan zen hura, dena izoztuta zegoen. Lan asko egin behar izan genuen zaintzeko", dio. Urte asko pasa dira ordutik, baina lan hau egiteko eskaini ziotenean, gustu handiz onartu zuen, txondorraren ohiturak duen pisua eta garrantziaren jakitun.



LUIS MARIA NUÑEZ



LUIS MARIA NUÑEZ

Alkizako XXI. mendeko bigarren txondorra lehenengoa baina nahiko handiagoa izan zen. Hiru metroko altuera eta 13 metroko diametroa zuen. Barnean, 4.500 kilo egur zeramatzan, 1.000 kilo ikatz egiteko. Egunero 200 kilo egur sartzen zizkioten.

Egunak aurrera joan ahala, txondorrek beti zuen jendea inguruan. Barnetegira etorritako ikasleen bisita izan zuen, baita ikastolako ikasleena ere. Orain dela lau urte Tomas, Onintza, Uxue, Martin, Koldo, Igone, Alaitz, Telmo, Naroa eta Julen izan ziren txondorra zaintzen egon zirenak aste guztian akanpatuta. Aurten izan dute jarraipena eta herriko haurrak ia egunero jaisiten ziren, bai eskolarekin edo gurasoekin, bere garapena ikustera.

Alkizarrez gain, jende ugari gerturatu zen Ikili baserrira. Hernanitik

Maitane, Miren, Nerea Leire, Unai, Aritz, Mikel eta Aitor joan ziren beren amekin, Asteasuko eskolako ikasleak ere gerturatu ziren, eta nola ez, Alkizako Barnetegian astea igarotzen ari ziren Trapagarango La Escondrilla eskolako 4. mailako ikasleak. Honetaz gain, Patxi asteasuarrak egunero egiten zuen bisita, etxerako bidean baitzuen eta.

Pixkanaka-pixkanaka, egurra egosten zihoan heinean egur pila txikitzen joan zen eta lehenengo egunetan egur gehiago sartu behar izan zioten txondorri lanean jarraitzeko. Lizarra, pinua, pagoa, platanoa, urritza, haritza... Alkizako basoetako zuhaitz mota askotatik ateratako egurra egosi zen bertan. Batzuk besteak baino hobekak dira ikatza egiteko, baina denak baliagarriak.

Txondorren alde guztietan egindako zuloek oxigenoa eman eta azkartu egiten dute egurraren egoste prozesua. Ikiliko txondorren laster hasi ziren zuloak egiten eta laugarren egunerako ikatza prest zegoen. Normalean pare bat egun itxarotea gomendatzen da ikatza ondo egosteko. Aurten Martin Goenagak baratza behar zuenez ez zen gehiago mantendu eta laugarren egunean ireki zen. Urtero bezala babarrunak eta artoa landatu behar zituen eta denbora bukatzen ari zitzaion.

Txondorren inguruan festa eta alaitasuna ez ziren falta izan. Martinek bere akordeoia jotzen zuen bertara hurbiltzen ziren guztiek dantza egiteko, eta Amixuri abesbatzako hainbat kide ere hurbildu ziren bertara urtean zehar ikasitako abestiekin bazkalondoak alaitzera. ■

Gorka, mila esker

Gorka joan zitzaigunetik urte bete joan da, iazko abuztutik alegia. Aldizkari honetan iaz idatzi ezin izan genuen oroitzapena, berarekiko zorra kitatzera gatoz.

Gorka Alkizako Oilategitik Kultura Elkartearen fundatzaileetako bat izan zen eta urtero aldizkari honetan parte hartu zuen. Bertako hemerote-kan ikus daitezke artikulu eta argazkiak.


Lehen alean, 2001ean, Koldo Jauregi eskultorea elkarrizketatu zuen. Alkizara bizitzera etorri eta berehala bertakotu zen. Horrela, bigarren alean lau alkizarrekin solasean herriaren

etorkizunaz kezkatu agertu zen. Hirugarren alean, 2003an berriz, hogeitun urte Antoniok alkatetzan egiten zituela eta, bera zuzenean elkarrizketatu zuen, Alkizako problematika planteatuz gordin-gordinean.

Gorkaren Alkizako bizitzan ondorengo urteak oso erabakigarriak suertatu ziren, senar-emazteek hiru seme-alaba adoptatu zituzten. Elkarrizketak egitetik, elkarrizketatu edo protagonista izatera pasatu ziren. Oilategiko bi artikulugilek *Urruzola-azpiko Elik eta Gorkak hiru haur errusiar adoptatu dituzte* izeneko artikulua taxutu zuten.

Oilategiko harremanetatik at, Gorkarekiko gure oroitzapena, Alkizakoa, beste honako hau ere ba da: mendian ibiltzea, bere hiru zakurrak lasterka batean paseatzea. Astia zuen bakoitzean, aldapa gora edo behera ziztu bizian kirol mota hura praktikatzen zuen, leku-izen edo toponimian ikasi eta bereganatzeko irrika aparta zuen. Herriko ibilbideetan parte hartu ohi zuen. Langile amorratua bezain kaskagorra zen bere buruarekiko. Behin Ernioko bira Aian amaitu ezinik, Iturriotzen helmuga iristear zegoela, lur jota bertan behera utzi zuen ibilaldia.

Gorkaren gogoz bere errautsak ere Itzuregiko lepoan zabaldu arazi zituen. Gorka eibartarra Alkizarrekin, mendiarekin eta Itzuregiko lepoarekin betiko loturik geratu zaigu alkizarroi. ■





Hotzikara nagusi zen
 berri hura aditzean
 abuztuko egun hartan
 eguzkia esnatzean,
 "betiko joan da Gorka"
 ahoz aho zabaltzean,
 gure barrua kolpetik
 geratu zen huts-hutsean.
 Ikusten zaitugu Gorka
 korrika bide ertzean
 zakur bat aurean eta
 beste bi zakur atzean,
 Erniopeko basoan
 zure pausu bakoitzean
 argi bat piztu ohi zendun
 alkizarron bihotzean

Zure lanaren lekuko
 bizi da Oilategitik
 beatzigarren alera
 heldu da amets hartatik.
 Zure itzala ez dadin
 desagertu Alkizatik
 bale bai, esango degu
 tarteka Gora Athletik!
 Apaltasunean beti
 saiatu zinen gogotik
 hitz txar bat ez gendun entzun
 sekula zure ahotik,
 irribarrea jaso bai,
 lehen hemen, gaur hor gainetik
 haizeak hegan ekartzen
 diguna Itzuregitik



Doinua: Habanera



Alkizako Udala



GFA



www.oilategitik.net

Datorren urtera arte!

